

**Fiskalizazio Txostena**

**Informe de Fiscalización**

**Irungo Udala**

**Ayuntamiento de Irun**

**2018**





## AURKIBIDEA/ÍNDICE

LABURTZAPENAK.....	7
<b>I. SARRERA.....</b>	<b>9</b>
<b>II. IRITZIA.....</b>	<b>10</b>
II.1 LEGEAK BETETZEARI BURUZKO IRITZIA.....	10
II.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA.....	10
<b>III. BARNE KONTROLEKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK.....</b>	<b>11</b>
III.1 UDALA .....	11
III.1.1 Aurrekontua, aldaketak eta kontabilitatea .....	11
III.1.2 Zerga-sarrerak.....	11
III.1.3 Kontratazioa .....	12
III.2 SOZIETATE PUBLIKOAK.....	13
III.2.1 Langileria .....	13
III.2.2 Kontratazioa .....	13
<b>IV. FINANTZAREN ANALISIA .....</b>	<b>14</b>
<b>V. URTEKO KONTUAK .....</b>	<b>17</b>
V.1 UDALA .....	17
V.2 SOZIETATE PUBLIKOAK.....	19
<b>ERANSKINAK .....</b>	<b>21</b>
A.1 Erakunde fiskalizatuaren izaera eta araudi aplikagarria .....	21
A.2 Aurrekontua eta aurrekontuko aldaketak .....	22
A.3 Zergak, tasak eta bestelako sarrerak .....	23
A.4 Transferentziek eta dirulaguntzek eragindako sarrerak .....	24
A.5 Ondare-sarrerak.....	25
A.6 Inbertsio errealen besterentzea .....	26
A.7 Langileria-gastuak.....	26
A.8 Ondasun arrunten eta zerbitzuen kontratazioa .....	28
A.9 Transferentziak eta emandako dirulaguntzak.....	29
A.10 Inbertsio errealak .....	30
A.11 Pasibo finantzarioak.....	30
A.12 Aurrekontuko zordunak .....	31
A.13 Aurrekontuz kanpoko eragiketak.....	31



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

A.14 Kontratazioaren analisisa .....	32
A.15 Sozietate publikoak .....	34
A.15.1 Langileria.....	34
A.15.2 Kontratazioa.....	35
<b>ALEGAZIOAK .....</b>	<b>37</b>
<b>ABREVIATURAS .....</b>	<b>51</b>
<b>I. INTRODUCCIÓN.....</b>	<b>53</b>
<b>II. OPINIÓN.....</b>	<b>55</b>
II.1 OPINIÓN SOBRE EL CUMPLIMIENTO DE LEGALIDAD .....	55
II.2 OPINIÓN SOBRE LAS CUENTAS ANUALES .....	55
<b>III. CONSIDERACIONES SOBRE LOS SISTEMAS DE CONTROL INTERNO Y PROCEDIMIENTOS DE GESTIÓN .....</b>	<b>56</b>
III.1 AYUNTAMIENTO .....	56
III.1.1 Presupuesto, modificaciones y contabilidad .....	56
III.1.2 Ingresos Fiscales.....	56
III.1.3 Contratación.....	56
III.2 SOCIEDADES PÚBLICAS .....	58
III.2.1 Personal.....	58
III.2.2 Contratación.....	58
<b>IV. ANÁLISIS FINANCIERO .....</b>	<b>59</b>
<b>V. CUENTAS ANUALES.....</b>	<b>62</b>
V.1 AYUNTAMIENTO .....	62
V.2 SOCIEDADES PÚBLICAS .....	64



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

<b>ANEXOS .....</b>	<b>67</b>
A.1 Naturaleza del ente fiscalizado y normativa aplicable .....	67
A.2 Presupuesto y modificaciones presupuestarias .....	68
A.3 Impuestos, tasas y otros ingresos .....	69
A.4 Ingresos por transferencias y subvenciones .....	70
A.5 Ingresos patrimoniales .....	71
A.6 Enajenación de inversiones reales .....	72
A.7 Gastos de personal .....	72
A.8 Compra de bienes corrientes y servicios .....	74
A.9 Transferencias y subvenciones concedidas .....	75
A.10 Inversiones reales .....	76
A.11 Pasivos financieros .....	76
A.12 Deudores presupuestarios .....	77
A.13 Operaciones extrapresupuestarias .....	77
A.14 Análisis de contratación .....	78
A.15 Sociedades Públicas .....	80
A.15.1 Personal .....	80
A.15.2 Contratación .....	81
<b>ALEGACIONES .....</b>	<b>83</b>

Vitoria-Gasteiz, 2020ko urriaren 29a  
Vitoria-Gasteiz, 29 de octubre de 2020





Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## LABURTZAPENAK

GLL	Gizarte Larrialdietarako Laguntzak.
GAO	Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala.
EAE	Euskal Autonomia Erkidegoa.
GFA	Gipuzkoako Foru Aldundia.
EBAO	Europar Batasuneko Aldizkari Ofiziala.
EEE	Energiaren Euskal Erakundea.
UFFF	Udal Finantzaketarako Foru Funtza.
EIOZ	Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga.
HILBIZ	Hiri izaerako Lursailen Balio Igoeraren gaineko Zerga.
PFEZ	Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko zerga.
EIT	Eraikinen Ikuskaritza Teknikoa.
BEZ	Balio Erantsiaren gaineko Zerga.
SPKL	9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa.
FA	Foru Araua.
EPE	Enplegu Publikoaren Eskaintza
BABA	Baldintza Administratibo Berezien Agiria.
HAPB	Hiri Antolaketako Plan Berezia.
ETA	Ezaugarri Teknikoen Plegua.
LZ	Lanpostuen zerrenda.
HIAZ	Hiritarrei Informazioa eta Arreta emateko Zerbitzua.
GLH	Gipuzkoako Lurralde Historikoa.
SPKLTB	3/2011 Legegintzazko Errege Dekretua, azaroaren 14koa, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen Testu Bategina.
HKEE	Herri-Kontuen Euskal Epaitegia.







## I. SARRERA

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak otsailaren 5eko 1/1988 Legeak eta Epaitegiaren Osoko bilkurak onetsitako Lan-programak agindutakoari jarraikiz, Irungo Udalaren 2018ko Kontu Orokorraren fiskalizazio lana mamitu du.

HKEEK gauzatutako Irungo Udalaren Kontu Orokorraren aurreko fiskalizazio-lana 2010eko ekitaldiaren gainekoa izan zen.

Fiskalizazio-lan honek honako alderdi hauek besarkatzen ditu:

- Legezketasuna: aurrekontuaren honako atal hauetan ezargarria den arautegia bete izana: aurrekontua, zuzenbide publikoko sarrerak, zorpetzea eta finantza-eragiketak, langileria, obren kontratazioa, zerbitzuak eta hornidurak eta dirulaguntzen emakida. Azterketa lan hau fiskalizazioaren ekitaldiari dagokio, beharrezko iritzi zaizien beste ekitaldi batzuei buruzko egiaztatzeak egitea eragotzi gabe, fiskalizazio-gai den ekitaldian eragina dutelako.
- Kontabilitatea: Udalaren eta bere sozietate publikoen kontuen likidazioa ezargarriak zaizkien kontularitzako printzipioekin bat datozela egiaztatzea.

Sozietate publikoen kontuei dagokienez, gure lana kanpoko enpresek gauzatutako auditoretzako txostenak aztertzea izan da eta horretarako, beharrezko iritzitako proba osagarriak edo auditoretzako beste zenbait prozedura bideratu ditugu.

- Lanaren zabalak ez du gastuaren efikazia eta efizientziari buruzko azterlan berariazkorik besarkatu; ezta, kudeaketa prozedurei buruzkorik ere. Nolanahi den ere, fiskalizazioan sortu diren alderdi partzialak txosten honen III. idazpuruan aztertu ditugu.
- Udalaren egoera ekonomikoaren finantza analisia.

Irungo Udalak 61.983 biztanle zituen 2018ko urtarrilaren 1eko biztanleen udal erroldaren arabera, eta antolamenduan Udalaz gain honako erakunde autonomoak eta udal sozietate publikoak barne hartzen ditu:

- Bidasoko Garapen Agentzia, SA (Bidasoa Bizirik) (% 80): Bidasoa Beherea eskualdea indartu eta sustatzeko intereseko jarduerak gauzatzea, besteak beste zerbitzu hauek eskainiz: lan-prestakuntza eta orientazioa; enpresak eta enplegua sustatzea; azterketa eta plangintzak egitea; mugaz bestaldeko kooperazioa sustatzea eta ikerketa eta garapen teknologikoko erakundeak sustatzea.
- Bidasoako Erakustazoka, SA (% 99,3): Bidasoako eskualdean erakustazoka egitea aztertu eta eraiki eta ondoren ustiatzea (% 99,30).
- Irungo Etxebizitzarako Elkarte Publikoa SAU (IRUNVI): etxebizitzak eta bestelako zeinahi alojamendu, areto eta aparkalekuak sustatu, eraiki eta kudeatzea; aipatu eraikinak sustatu, eraiki eta kudatzeko obra eta azterlan eta proiektu mota oro esleitu eta kontratatzea; beharrezkoa den garapenaren plangintza eta urbanizazio proiektuak idaztea; ondasun higiezin eta eskubide errealen gaineko erosketak edo jabetza eskualdatzeak; sustapen publiko zuzena birgaitzeko jarduerak.
- Blaia Irungo Udal Hileta Zerbitzuak SA (BLAIA) (% 100): Hileta zerbitzuak eta errausketa eta hilerriko zerbitzuak kudeatu, garatu eta ustiatzea.



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## II. IRITZIA

### II.1 LEGEAK BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

1. Udalak 2018ko ekitaldian onartu zuen bi zerbitzu ematen jarraitzea bi-bien kontratuak iraungi ondoren, 408.330 euroren gastua egikaritzuz. Kontratu berrien tramitazioa aurreko kontratuak iraungi eta 4 eta 6 hilabetetara abiarazi zen (ikus A.16).
2. Bidasoako Erakustazoka SAK 2018an iraungitako lau kontratu egikaritu ditu, 217.541 euroren gastua izan dutenak. Gainera, energia elektrikoa hornitzeagatik 113.340 euroren gastua egin du; kontratuaren zenbatekoa eta iraupena aintzat hartuta, baina, publikotasundun prozedura ireki bitartez esleitu behar zatekeen (ikus A.15.2).

Epaitegi honen iritzira, Irungo Udalak eta bere sozietate publikoek, 1. eta 2. paragrafoetan aipatutako ez-betetzeak alde batera, zuzentasunez bete dute 2018ko ekitaldian ekonomia-finantzaren jarduera arautzen duen lege arautegia.

### II.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA

1. Udalak ez ditu onartu 2017 eta 2018ko Balantzea, Emaitzen Kontua eta Oroitidazkia, ez baita ekitaldi horietako Kontu Orokorra formulatu (21/2003 FA).
2. BLAI Ak 2008an 937.495 euroren diru-sarrera erregistratu zuen, 50 urteko eperako 64 hilobiren lagapenaren esleipen hartzaileek ordaindutako zenbatekoaren ordainetan. Epe hau emakida titulua eman eta hurrengo egunetik aurrera hasi zen zenbatzen. Emakida azkenean alkatetzaren 2009ko otsailaren 6ko ebazpen bitartez eman zen. Aipatutako emakiden ordainketa diru-sarreratzat hartzeko kontularitzako araudiak ezarritako irizpideei jarraikiz, 2018ko abenduaren 31ko Egoeraren balantzeko “Epe motzeko aldizkakotzeak” eta “Epe luzeko aldizkakotzeak” idazpuruak, hurrenez hurren, 18.750 euroan eta 733.095 euroan gutxietsiak daude eta balantze horretako “Ondare garbia” idazpuruua 751.845 euroan gehiegi balioztatua dago. Bestalde, aipatutako “Ondare garbiko” “Erreserbak” eta “Ekitaldiaren emaitza” idazpuruak 2018an 18.750 euroan gehiegi eta gutxiegi balioztatuak daude, hurrenez hurren.

Epaitegi honen iritzira, 1. eta 2. paragrafoetan adierazitako akatsak salbuetsita, Irungo Udalaren eta bere sozietate publikoen kontuek alderdi esanguratsu guztietan erakusten dute 2018ko aurrekontuko ekitaldiaren jarduera ekonomikoa.

### III. BARNE KONTROLEKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA-PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK

Atal honek besarkatzen ditu bai ekonomia- eta finantza-jarduera arautzen duten printzipioak betetzea nabarmen eragiten ez duten hutsak, bai prozedurazko alderdiak ere, kudeaketa hobetzeko azaleratu ditugunak.

#### III.1 UDALA

##### III.1.1 AURREKONTUA, ALDAKETAK ETA KONTABILITATEA

- 2018ko aurrekontura 2017 baino lehenagoko ekitaldietako kredituak txertatu dira, 2,4 milioi euroren zenbatekoarekin. Aurrekontu-araudiak ez du txertaketa jarraiturik egiten uzten, nola eta inbertsioa ez den helburudun diru-sarrerekin finantzatzen.
- “Bermeak eta jasotako gordailuak” aurrekontuz kanpoko kontzeptuak oso zaharrak diren saldoak jasotzen ditu (2004 baino lehenagoko 170.110 euro), nekez eskagarri direnak. Komenigarria litzateke idazpuruan kontabilizatutako berme edo gordailuen eskagarritasun maila aztertzea eta kasua balitz, itzuli edo erregularizatu egin beharko lirateke.
- Udalak ez ditu dirulaguntza arruntekin finantzatutako gastuei lotutako finantzaketako desbideratzeak kalkulatzeko, eta horietan, besteak beste, Lanbideko dirulaguntzak sortutako desbideratzea gailentzen da, Udalak 2018an 641.052 euroren zenbatekoarekin erregistraturikoa (ikus A.4).
- Trakzio mekanikodun ibilgailuak aparkatzeagatik zerbitzuengatik eskuratutako diru-sarrerak tasak dira. Udalak sarrerak eta gastuak erregistratu behar lituzke kontzeptu horiekin.

##### III.1.2 ZERGA-SARRERAK

- Udalak egindako IZIOren likidazioak ez du alkateak edo eskuordetutako organoak onartzen.
- 2018ko ekitaldian baliogabetu egin dira aurreko urteetako zerga sarreretatik kobratzeko zeuden saldoak, 347.688 euroren zenbatekoan, nagusiki GFARA kobratzeko igorritako eta kobratu izan ezin diren isunena. Baliogabetze horiek ez ditu Udalaren inongo atalek onartu.

##### III.1.3 KONTRATAZIOA

Udalaren kontratazio administratiboa aztertu dugu eta honako alderdi hauek bereizi ditugu (ikus A.14):

- Eraikinen eta udal aretoen garbiketa kontratuaren BABAk (1 zk. espediente), 5,6 milioi euroren zenbatekoan esleitu zenak, barne hartzen dituen balorazio-irizpideek (ekarritako makineria eta bitarteko teknikoak) ez dute proportzionaltasunik puntuak esleitzeko orduan (gehiengo puntuazioa edo zero puntu ematen dira).

- Guztira 466.784 euroren zenbatekoarekin esleitutako 2 kontratutan (6 eta 7 espedienteak), pleguetan jasotako aurreko kontratistaren langileak subrogatzeko obligazioa ez da jaso aplikagarri den hitzarmenean. Betekizun hau enpresa eta langile arteko sektoreko hitzarmenetatik soilik erator daiteke.
- 314.161 euroren kontratu bat (7. espedientea) publikotasundun prozedura negoziatu bidez esleitu da, SPKL berriko 167. artikulua aurreikusitako ezein kasutan sartzen ez dela; honenbestez, prozedura ireki bidez esleitu behar zatekeen.
- Guztira 432.905 euroren zenbatekoan esleitutako obra kontratu baten BABAk (11. espedientea) kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko egiaztatze sailek zuzendutako ziurtagiri jakin bat soilik jasotzen du. Espediente mota honetarako, gomendagarria litzateke araudian aurreikusitako gainerako baldintzak aplikatzea.
- Irungo Hiri Garraio Kolektiboko zerbitzu publikoa kudeatzeko kontratuaren Ezaugarri Teknikoen Agiriak (8. espedientea), 10,7 milioi euroan esleitu zenak, baldintza modura eskatzen du gehieneko distantzia bat izatea linea-buruen eta garaje-nabearen artean; ez da, baina, egoera hori justifikatu espedientean.
- Guztira 17,2 milioi euroan esleitutako aztertu ditugun 5 espedientetan (2, 5, 6, 7 eta 8 zk. espedienteak) ez dago jasota Kontratazio-mahaiak egiaztatu duenik kontratuen esleipen-proposamenaren ostean kaudimen-betekizuna betetzen dela.
- Udalak 2017an 2 urtetarako guztira 1,5 milioi euroan esleitutako zerbitzu-kontratu batean (3. espedientea), esleipendunari eskatutako behin betiko bermea ez dator bat kontratuaren guztizko prezioarekin, baizik eta urteko bakar baten zenbatekoarekin.
- Aztertutako 5 obra kontraturen egikaritzea (9tik 12ra bitartekoak eta 14. espedientea), 9,8 milioi euroan esleitutakoak, aurreikusitako epeaz haratago luzatu da, luzapenik batere formalizatu gabe. Udalak ez ditu 9. eta 14. espedienteen urtekoak berregokitu, haien egiazko egikaritzara doitzeko.
- Hondarribi kalea urbanizatzeko obren kontratua gauzatzean (14 zk. espedientea), 1,5 milioi euroan esleitutakoan, obra unitate batzuk (iturria eta lorategi bertikala) beste berri batzuekin ordeztu ziren (eskultura eta murala) eta ez zen kontratuaren aldaketa izapidetu, nahiz % 2 garestitu zen eta aurrekontuaren % 7ko zenbatekoan obra unitateak eragin zituen.
- Udalak 2 zerbitzu kontratu izenpetu ditu aurrekoak iraungi aurretik kontratu berrien esleipenak epean egiteko behar hainbateko denborarik gabe. Hori dela eta, uztailla eta abendua bitartean, aurreko esleipendunek zerbitzua ematen jarraitu dute luzapenen bidez; gastu horiek 229.587 euro egin dute.
- Udalak kontratu txiki modura 686.952 euroren ondasun eta zerbitzuen kontratuak izapidetu ditu, hirugarrenekin gauzatutakoak; ordea, horietarako sorta edo aleko prezioetan egin liteke lizitazioa, ohikotasunez kontratatzen diren gastuak direlako eta horien urteko beharra aurreikus daitekeelako.



## III.2 SOZIETATE PUBLIKOAK

### III.2.1 LANGILERIA

- Ez da berriaz onartu IRUNVI eta BLAIA sozietate publikoak Udalaren hitzarmenera atxikitzea, nahiz, izatez, hitzarmen horrek arautzen dituen. Gainera, BLAIA sozietateak ez du ez ordainsari igoera ez produktibitate-osagarria aplikatzeko erabakirik hartu (ikus A.15.1).
- 2018ko abenduaren 31n indarrean diraute obra edo zerbitzu jakinerako bi lan kontratuk IRUNVI eta Bidasoa Bizirik sozietateetan, 2006an abiarazitakoak jada amaiturik dauden jarduera edo programak gauzatzeko. Kontratuen iraupenak adierazten du garatutako egitekoek iraunkortasun izaera dutela eta honenbestez, zuzendu egin behar da horien egoera.

### III.2.2 KONTRATAZIOA

Entitate hauetan kontratazioa aztertu dugu eta honako alderdi hauek bereizi ditugu (ikus A.15.2):

- Aztertutako 2 espedienteen BABAetan, Bidasoa Bizirik sozietateak 342.985 euroren zenbatekoan esleitutakoetan (3 eta 4 sozietateak), aurreikusitako aldaketek ez dute modu argi, zehatz eta zalantzarik gabe adierazten zein egoeratan gauzatu ahal izango diren aldaketa horiek.
- Bidasoa Bizirik sozietateak 2018an 189.000 euroan bi urtetarako esleitutako espedientea batean, beste urtebetez luzagarria, prezio irizpidea balioztatzeko erabilitako formulak puntuak ematen dizkie lizitazio aurrekontua berdintzen duten eskaintzei eta honenbestez, murriztu egiten du irizpide honen haztapena. Gainera, esleipen irizpide modura, eskatu eta baloratu egiten da Bidasoa-Txingudiko eskualdean jendeari arreta eta informazio turistikoa emateko lanetan eskuratutako eskarmentua.
- Bidasoa Bizirik sozietateak 153.985 euroan aleko prezioetan esleitutako espediente baten (4 zk. espedientea) BABAek barne hartzen dituzten esleipen irizpideak onarpen irizpide izan behar lukete, hala nola kalitate ziurtagiriak eta esleitutako baliabide materialen balorazioa, zeinak soil-soilik baliozta baitaitezke pleguetan adierazitako kaudimen baldintza minimoak gainditzen badira.
- IRUNVI SA eta BLAIA sozietateek 2018an, hurrenez hurren, 12.000 eta 9.690 euroren gastuak onartu dituzte. Prestazio aldizkako eta aurreikusteko modukoak direnez gero, hainbat ekitalditako lizitazio-zenbatekoak pilatu beharko lirateke, eta aplikatzekoa zaion prozedura erabili.



#### IV. FINANTZAREN ANALISIA

Ondotik, Udalak 2016-2018 aldian zehar likidatutako magnitude nagusien bilakaera erakutsiko dugu.

FINANTZAREN ANALISIA	Euroak milakotan			Euroak/biztanleko		
	Urtea			Urtea		
	(*)2016	(*)2017	2018	(*)2016	(*)2017	2018
Zerga zuzenak, zeharkakoak eta tasak (1, 2 eta 3 kap.).....	25.968	24.350	24.414	422	394	394
Transferentzia eta dirulaguntza arruntak (4. kap.) .....	43.009	44.799	48.744	698	724	786
Ondare sarrerak (5. kap.) .....	1.343	1.310	1.245	22	21	20
<b>A. Diru-sarrera arruntak .....</b>	<b>70.320</b>	<b>70.459</b>	<b>74.403</b>	<b>1.142</b>	<b>1.139</b>	<b>1.200</b>
Langileria gastuak (1. kap.) .....	22.841	23.501	25.994	371	380	419
Ondasun arrunten erosketak eta zerbitzuak (2. kap.) .....	20.478	20.553	21.835	332	332	352
Transferentzia eta dirulaguntza arruntak (4. kap.) .....	9.306	10.593	10.422	151	171	168
<b>B. Funtzionamendu gastuak.....</b>	<b>52.625</b>	<b>54.647</b>	<b>58.251</b>	<b>854</b>	<b>883</b>	<b>939</b>
<b>Aurrezki gordina (A-B).....</b>	<b>17.695</b>	<b>15.812</b>	<b>16.152</b>	<b>288</b>	<b>256</b>	<b>261</b>
-Finantza gastuak (3. kap.).....	523	443	370	8	7	6
<b>Emaitza arrunta.....</b>	<b>17.172</b>	<b>15.369</b>	<b>15.782</b>	<b>280</b>	<b>249</b>	<b>255</b>
-Maileguen amortizazioa (9. kap.).....	3.689	3.597	2.446	60	58	39
<b>Aurrezki garbia</b>	<b>13.483</b>	<b>11.772</b>	<b>13.336</b>	<b>220</b>	<b>191</b>	<b>216</b>
Inbertsio errealen besterentzea (6. kap.).....	1.483	1.311	537	24	21	9
Jasotako kapitaleko dirulaguntzak (7. kap.).....	2.430	576	1.495	39	9	24
-Inbertsio errealak (6. kap.) .....	(9.296)	(7.704)	(12.923)	(151)	(125)	(208)
-Emandako kapitaleko dirulaguntzak (7. kap.).....	(2.387)	(928)	(955)	(39)	(15)	(15)
<b>Kapital eragiketaren emaitza</b>	<b>(7.770)</b>	<b>(6.745)</b>	<b>(11.846)</b>	<b>(127)</b>	<b>(110)</b>	<b>(190)</b>
<b>Eragik. ez finantzarioaren emaitza (1etik 7rako kap.)</b>	<b>9.402</b>	<b>8.624</b>	<b>3.936</b>	<b>153</b>	<b>139</b>	<b>65</b>
<b>Diruzaintza Geldikina .....</b>	<b>22.167</b>	<b>25.965</b>	<b>30.898</b>	<b>360</b>	<b>420</b>	<b>498</b>
<b>Gastu orokorretarako diruzaintza-geldikina .....</b>	<b>21.996</b>	<b>25.538</b>	<b>26.183</b>	<b>357</b>	<b>413</b>	<b>422</b>
<b>Zorpidetza .....</b>	<b>23.352</b>	<b>19.755</b>	<b>17.308</b>	<b>379</b>	<b>319</b>	<b>279</b>

(\*) HKEEK fiskalizatu gabeko datuak.

**Sarrera arruntak:** 2018ko ekitaldian kitatutako diru-sarrera arruntek % 5,62 egin dute gora 2017koen aldean eta % 5,8, 2016koen aldean. Hona hemen kontzeptuen araberrako bariazio nagusiak:

- **Zergak:** 2017an eskubide aitortuek behera egin dute eta ez dute aldaketa esanguratsurik izan 2018an aurreko ekitaldiaren aldean. Bariazioa hau gertatu da HILBIZen likidazioetan izandako moteltzeagatik, Konstituzio Auzitegiaren epaiaren ondorioz, eta GFAk onartutako araudi berriagatik.
- **Tasak eta bestelako sarrerak:** Osotasunean ez da aldaketa esanguratsurik gertatu, nahiz banaka azpimarratzekoak diren 2017koaren aldean premiatutako isunen bilketan izandako igoera, GFAk gauzatu duena eta 437.561 euro egin dituen; kopuru hori berdindu da ekitaldi itxietako itzulketek 222.913 euro behera egitearekin.



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

- **Transferentzia eta dirulaguntza arruntak:** 2018an eta 2017an % 8,8 eta % 4,2ko igoera izan dute, hurrenez hurren. Igoera eragin du Udal Finantzaketarako Foru Funtsean izandako partaidetzak, 2017an 1,7 milioi euro eta 2018an 3,8 milioi euro gehitu denak.

**Funtzionamendu-gastuak:** 2018an % 6,6 egin dute gora 2017ko urtearekiko eta % 3,8, 2017an, aurreko ekitaldiaren aldean. Hona hemen bariazio adierazgarrienak:

- **Langile-gastuak:** Kapitulu honen gastua 2018an % 10,6 igo da aurreko urtearen aldean. Igoera hau honako hauek eragin dute: 2018rako Estatuko Aurrekontu Orokorren Legean finkatutako ordainsarien igoerak; 47 lanposturen balorazioak eragindako atzerapenen milioi 1 euroren ordainketak; produktibitate-osagarri baten ordainketak izandako 242.580 euroren igoerak, 2017koaren aldean; eta Gizarte Segurantzaren gastuan 378.263 euroren igoerak.
- **Ondasun arrunt eta zerbitzuen kontratazioa:** 2017an ez da aldaketa esanguratsurik gertatu, baina 2018an 1,3 milioi euroan gehitu dira, % 6,2, alegia; etxez etxeko laguntza zerbitzua eta egoitzetan sorospen-zerbitzuak eta harrerakoak gehitu izanak eragin du igoera, zeinak hurrenez hurren gastua 530.000 eta 230.000 euro igotzea eragin duten; baita, Real Uniónekin izenpetutako publizitatearen babesletza kontratuak ere, 116.160 euroren gastua eragin duenak.
- **Dirulaguntzak eta transferentzia arruntak:** 2018an gastuak 2017an zuen maila antzekoari eusten dio, baina 2017an 1,3 milioi euro egin zuen gora, % 13,8. Igoera hau gertatu da 2016an zenbait deialdi atzeratu zirelako eta 622.374 euro egikaritu gabe utzi zirelako; gainera, 2017an IRUNVIK 517.523 euroren transferentzia eskuratu zuen eta ez zen halakorik gertatu 2016an.

**Aurrezki gordina eta garbia:** 2018an aurrezki gordinak 2017an zuen maila antzekoetan eusten dio, izan ere langile gastuen eta ondasun arrunt eta zerbitzuetako kontratazioaren igoera berdindu egiten da Udal Finantzaketarako Foru Funtseko partaidetzan duen igoerarekin. Ekitaldi horretako aurrezki garbiak % 13,3 egin zuen gora 2017koaren aldean, finantza zamek behera egin izanaren ondorioz.

**Kapital-eragiketen emaitza:** 2018ko ekitaldian kapital eragiketen emaitza negatiboa 5,1 milioi euro gehitu da. Igoera hau gertatu da 2018ko inbertsio errealek gora egin dutelako, batik bat obra hauen ondorioz: tenis elkarteko instalazioetan (2,2 milioi euro); Uranzu pilotalekuan (2,2 milioi euro); eta Artaleku kiroldegiko estalkian (848.734 euro).

**Diruzaintza geldikina eta Zorpetzea** Diruzaintza geldikina positiboa izan da eta goranzko joera erakutsi du 3 ekitaldietan, 2016an 22,2 milioi eurorena izatetik, 2018an 30,9 milioi euro izatera. Gastu orokorretarako diruzaintza geldikina ere positiboa izan da eta gora egin du aztertutako aldian.



Aztertu diren hiru ekitaldietan Udalak ez du kreditu gehiago hitzartzea onartu eta honenbestez, finantza zamak behera egin du sarrera arrunten gainean, 2016an % 33,2 izatetik, 2018an % 23,3 izatera.

**Ondorioa:** Udalak ez du zorpetzeko beharrik izan eta nahikoa izan da sortutako aurrezki garbia kapitalezko eragiketen defizita finantzatzeko.

**Aurrekontuaren egonkortasuna:** Udalaren Kontu-hartzaitzako txostenak jasotzen du bete dela aurrekontuaren egonkortasun eta finantzaren iraunkortasun printzipioa 2018ko ekitaldiko Aurrekontuaren likidazioan Administrazio publikoaren sektorea osatzen duten enteetan (Udala eta udal sozietate publikoak ez ezik, Bidasoa-Txingudi Mugaz-gaindiko Partzuergoan) eta ez dela bete gastuaren araua, diruzaintza geldikina erabili izateagatik. 1/2013 FAren hirugarren arauan xedatutakoaren arabera, Udalbatzari jakinarazi beharko zaio, FA horren 5.3 artikulua aurreikusitakoaren arabera.

Bidasoako Erakustazoka SA sozietatea desoreka finantzarioko egoeran dago 2018ko abenduaren 31n, desoreka hori zuzentzeko planik batere onartu ez delarik.





Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## V. URTEKO KONTUAK

### V.1 UDALA

#### 2018KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Euroak milakotan

SARRERAK	ERANSK.	AURREKONTUA			ESKUBIDE		KOB.R.		%
		HASIER.	ALDAK.	B.BETIK.	KITAT.	KOBR.	GABEA	EXEK.	
1. Zerga zuzenak .....	A.3	18.568	-	18.568	18.177	16.977	1.200	98	
2. Zeharkako zergak .....	A.3	1.300	-	1.300	734	689	45	56	
3. Tasak eta bestelako sarrerak .....	A.3	4.615	27	4.642	5.503	4.363	1.140	119	
4. Transferentzia arruntak .....	A.4	45.977	261	46.238	48.744	44.839	3.905	105	
5. Ondare-sarrerak.....	A.5	1.238	-	1.238	1.245	1.137	108	101	
6. Inbertsio errealen besterentzea .....	A.6	1.432	-	1.432	537	462	75	38	
7. Kapital transferentziak .....	A.4	837	300	1.137	1.495	398	1.097	131	
8. Aktibo finantzarioak .....		-	25.714	25.714	63	12	51	-(*)	
<b>GUZTIRA</b>		<b>73.967</b>	<b>26.302</b>	<b>100.269</b>	<b>76.498</b>	<b>68.877</b>	<b>7.621</b>	<b>103(*)</b>	

(\*) Exekuzioaren % kalkulaterakoan Diruzaintza-geldikin bidez finantzatzearen eragina zuzendu da.

Euroak milakotan

GASTUAK	ERANSK.	AURREKONTUA			OBLIG.		ORDAIN.		%
		HASIER.	ALDAK.	B.BETIK.	AITORT.	ORDAINK.	GABE	EXEK.	
1. Langileria-gastuak.....	A.7	24.829	1.179	26.008	25.994	25.982	12	100	
2. Ondasun arruntan eta zerbitzuen kontrat.....	A.8	24.411	1.127	25.538	21.835	18.513	3.322	86	
3. Gastu finantzarioak.....		441	2	443	370	370	-	84	
4. Transferentzia arruntak .....	A.9	10.769	2.482	13.251	10.422	9.785	637	79	
5. Kreditu glob. eta bestel. ustekabekoak .....		75	(64)	11	-	-	-	-	
6. Inbertsio errealak .....	A.10	9.491	18.736	28.227	12.923	10.532	2.391	46	
7. Kapital transferentziak .....	A.9	1.534	2.840	4.374	955	942	13	22	
8. Aktibo finantzarioak .....		-	-	-	63	63	-	-	
9. Pasibo finantzarioak.....	A.11	2.417	-	2.417	2.446	2.446	-	101	
<b>GUZTIRA</b>		<b>73.967</b>	<b>26.302</b>	<b>100.269</b>	<b>75.008</b>	<b>68.633</b>	<b>6.375</b>	<b>75</b>	
<b>SARRERAK - GASTUAK</b>					<b>1.490</b>				

#### AURREKONTU ITXIEN BARIAZIOA

Euroak milakotan

	HASIER.	BALIOG.	KOBR./	AZKEN
	ZORRA		ORDAIN.	
Zordunak (Ikus A.12) .....	7.891	607	3.321	3.963
Hartzekodunak .....	5.384	-	5.345	39
<b>GUZTIRA</b>		<b>607</b>		



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

AURREKONTUAREN EMAITZA	Euroak milakotan
Eskubide kitatuak .....	76.498
Obligazio aitortuak .....	(75.008)
Aurrekontu itxietan eskubideen bariazioa .....	(607)
Obligazioen baliogabetzea aurrekontu itxietan.....	-
<b>AURREKONTUAREN EMAITZA</b>	<b>883</b>
Diruzaintza geldikinarekin finantzatutako oblig.....	12.830
Finantzaketako desbideratzeak .....	(61)
<b>AURREKONTUAREN EMAITZA DOITUA</b>	<b>13.652</b>

DIRUZAINZAKO GELDIKINA	Euroak milakotan
Diruzaintza .....	28.987
Aurrekontuko zordunak (A.12) .....	11.584
Aurrekontuz kanpoko zordunak (ikus A.13) .....	67
Aurrekontuko hartzekodunak .....	(6.414)
Aurrekontuz kanpoko zordunak (ikus A.13) .....	(3.326)
Aplikatzeke dauden sarrerak.....	-
Aplikatzeke dauden ordaink. ....	-
<b>DIRUZAINZTA GELDIKINA GUZTIRA 18.12.31-N</b>	<b>30.898</b>
Zalantzako kobragarritasuneko zordunak (ikus A.12) .....	(4.065)
Finantzaketa atxikia duten gastuetarako Diruzaintza Geldikina (A.4) .....	(650)
<b>GASTU OROKORRETARAKO DIRUZAINZTA-GELDIKINA 18.12.31-N</b>	<b>26.183</b>

ZORPETZEA	Euroak milakotan
ZORPETZEA 18.12.31N (ikus A.11).....	17.308
<b>GUZTIRA</b>	<b>17.308</b>



## V.2 SOZIJETATE PUBLIKOAK

BALANTZEA 2018KO ABENDUAREN 31N

Euroak milakotan

	BIDASOA BIZIRIK	BIDASOAKO ERAKUST.	IRUNVI	BLAIA
<b>AKTIBO EZ ARRUNTA</b>	<b>148</b>	<b>15.704</b>	<b>16.489</b>	<b>6.614</b>
lbilgetu ukiezina.....	-	382	-	1
lbilgetu materiala.....	144	151	15	6.613
lbilgetuko inbertsioak.....	-	15.171	16.470	-
Finantza inbertsioak epe luzera.....	4	-	4	-
<b>AKTIBO ARRUNTA</b>	<b>2.674</b>	<b>122</b>	<b>12.197</b>	<b>801</b>
Izakinak.....	-	-	8.855	-
Zordunak eta kobratz. bste knt. btzu e/lab.....	2.314	74	259	73
Finantza inbertsioak epe laburrera.....	35	-	1	150
Aldizkatzeak epe laburrera.....	-	-	-	4
Eskudirua eta beste aktibo likido baliokide batzuk.....	325	48	3.082	574
<b>AKTIBOA, GUZTIRA</b>	<b>2.822</b>	<b>15.826</b>	<b>28.686</b>	<b>7.415</b>
<b>ONDARE GARBIA</b>	<b>515</b>	<b>15.581</b>	<b>16.390</b>	<b>7.023</b>
Funts propioak.....	371	3.598	6.663	477
Kapitalezkoak.....	60	8.546	5.407	61
Jaulkipen prima.....	-	1.743	-	-
Erreserbak.....	99	888	1.227	408
Aurreko ekitaldien emaitza.....	(8.509)	(13.494)	-	-
Bazkideen beste ekarpen batzuk.....	8.720	6.616	-	-
Ekitaldiaren emaitza.....	1	(701)	29	8
Jasotako dirulaguntza, dohaintza eta legatuak.....	144	11.983	9.727	6.546
<b>PASIBO EZ-ARRUNTA</b>	<b>-</b>	<b>60</b>	<b>8.783</b>	<b>326</b>
Epe luzeko zorrak.....	-	60	1	-
Aldizkakotzeak epe luzera.....	-	-	8.782	326
<b>PASIBO ARRUNTA</b>	<b>2.307</b>	<b>185</b>	<b>3.513</b>	<b>66</b>
Epe motzeko zorrak.....	52	-	2	2
Taldeko enpresa eta elkartuekiko zorrak.....	270	-	-	-
Hartzekod. eta ordaintz. bst kontu batz.....	375	185	3.478	64
Aldizkakotzeak.....	1.610	-	33	-
<b>ONDARE GARBIA ETA PASIBOA, GUZTIRA</b>	<b>2.822</b>	<b>15.826</b>	<b>28.686</b>	<b>7.415</b>



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

2018KO EKITALDIKO EMAITZEN KONTUA

Euroak milakotan

	BIDASOA BIZIRIK	BIDASOAKO ERAKUSTAZOKA	IRUNVI	BLAIA
Negozio zifraren zenbateko garbia.....	56	110	686	326
Izakinen bariazioa .....	-	-	28	-
Hornikuntzak .....	(506)	-	(61)	(3)
Ustiapeneko bestelako sarrerak.....	2.852	56	137	-
Langileria gastuak (ikus A.15.1).....	(1.898)	(10)	(243)	(262)
Bestelako ustiapen gastuak .....	(505)	(631)	(286)	(50)
Ibilgetuaren amortizazioa .....	(22)	(492)	(244)	(609)
Ibilgetu ez finantzarioko dirulaguntzak egoztea eta beste .....	22	265	-	606
Ibilgetua besterenganatzeagatiko narriadura eta emaitza .....	4	-	4	-
Beste emaitza batzuk .....	-	1	-	-
<b>USTIAPENAREN EMAITZA</b>	<b>3</b>	<b>(701)</b>	<b>21</b>	<b>8</b>
<b>EMAITZA FINANTZARIOA</b>	<b>(2)</b>	<b>-</b>	<b>9</b>	<b>-</b>
<b>EMAITZA ZERGA AURRETIK</b>	<b>1</b>	<b>(701)</b>	<b>30</b>	<b>8</b>
<b>ZERGAK</b>	<b>-</b>	<b>-</b>	<b>(1)</b>	<b>-</b>
<b>EKITALDIAREN EMAITZA</b>	<b>1</b>	<b>(701)</b>	<b>29</b>	<b>8</b>

## ERANSKINAK

### A.1 ERAKUNDE FISKALIZATUAREN IZAERA ETA ARAUDI APLIKAGARRIA

Irungo Udala administrazioko toki erakundea da, oinarrizko ezaugarrietan Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legeak eta apirilaren 7ko 2/2016 Legeak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak, arautzen dutena.

Lege horrek, II. Tituluan III. Kapitulan, udalerriek dituzten eskumenak eta ematen dituzten zerbitzu publikoak zehazten ditu, besteak beste: segurtasuna, garbiketa-zerbitzua, hiri-garraio kolektiboa, suteak itzaltzea, ura hornitzea, saneamendu-sarea, argiteria publikoa, hirigintzako diziplina eta kultur- eta kirol-jarduerak.

Zerbitzuak zuzenean eman ditzake bai toki-erakundeak berak, bai toki erakunde autonomoek, tokiko enpresa erakunde publikoek edo berak sortutako tokiko merkataritzako sozietate publikoek eta zeharka, zerbitzu publikoak kudeatzeko kontraturako kontratazio publikoari buruzko legedian aurreikusitako molde ugariak baliatuta. Gainera, toki erakundeak bere eskumeneko zerbitzuak eman ditzake bera partaide den mankomunitate eta partzuergoen bidez.

Ekitaldian ezargarria den araudi nagusia honako hau da:

- 21/2003 Foru Araua, abenduaren 19koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Toki Entitateen aurrekontuei buruzkoa.
- 11/1989 Foru Araua, uztailaren 5ekoa, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituena.
- 86/2015 Foru Dekretua, abenduaren 15ekoa, Gipuzkoako toki erakundeen kontularitzako esparru arautzailea onesten duena.
- 2018ko ekitaldiko Aurrekontua Egikaritzeko Udal Araua.



## A.2 AURREKONTUA ETA AURREKONTUKO ALDAKETAK

2018ko ekitaldirako aurrekontua 2017ko abenduaren 22ko Udalbatzak onetsi zuen hasiera batean. Jendaurrean azaltzeko epea igaro ondoren eta erreklamaziorik batere izan ez zenez gero, behin betiko onartu zen eta 2018ko otsailaren 6ko GAOn argitaratu.

### AURREKONTUKO ALDAKETAK

Hona hemen Udalak 2018ko ekitaldian egindako aurrekontuko aldaketan xehakapena kapituluka:

KAPITULUAK	GELDIKIN TXERTAK.	KREDITU GEHIGARRIA	KREDITU GAIKUNTZA	TRANSFERENTZIAK		GUZTIRA
				NEG.	POS.	
1. Langileria-gastuak.....	99	1.015	65	-	-	1.179
2. Ondasun arrunt eta zerbitzuen kontrat. ....	1.232	396	67	180	(748)	1.127
3. Gastu finantzarioak.....	-	-	-	2	-	2
4. Transferentzia arruntak.....	2.009	367	153	26	(73)	2.482
5. Kontingentzia funtsa.....	-	-	-	-	(64)	(64)
6. Inbertsio errealak.....	14.397	3.384	280	675	-	18.736
7. Kapital transferentziak.....	2.584	254	-	2	-	2.840
<b>GASTUAK GUZTIRA</b>	<b>20.321</b>	<b>5.416</b>	<b>565</b>	<b>885</b>	<b>(885)</b>	<b>26.302</b>
3. Tasak eta bestelako sarrerak.....	-	-	27	-	-	27
4. Transferentzia arruntak.....	-	-	261	-	-	261
7. Kapital transferentziak.....	23	-	277	-	-	300
8. Aktibo finantzarioen bariazioa.....	20.298	5.416	-	-	-	25.714
<b>SARRERAK GUZTIRA</b>	<b>20.321</b>	<b>5.416</b>	<b>565</b>	<b>-</b>	<b>-</b>	<b>26.302</b>

Aurrekontuko aldaketek % 35,56ko igoera eragin dute. Aurrekontuko aldaketa esanguratsuen, Gastu Orokorretarako Dirutzaintza Geldikin bidez finantzatutako kreditu-txertaketak eragindakoa da (19.7 milioi euro).

2018ko ekitaldiko Aurrekontuen likidazioa 2019ko martxoaren 29an onartu zen Alkatetzaren Dekretu bitartez. Kontu Orokorra onartzeke dago txosten hau idatzi dugun datan.

### A.3 ZERGAK, TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK

Hona hemen 2018ko ekitaldian zerga zuzen, zeharkako, tasa eta bestelako sarreren kontzeptuan kitaturiko eskubideen xehakapena:

Euroak milakotan	
KONTZEPTUA	ESKUBIDE KITATUAK
Ondasun higiezinaren gaineko zerga (OHZ).....	11.063
Trakzio Mekanikodun Ibilgailuen gaineko Zerga (TMIZ) .....	4.191
Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga (JEZ) .....	2.015
Hiri izaerako lursailen balioaren igoeraren gaineko zerga (HILBIZ) .....	908
<b>ZERGA ZUZENAK GUZTIRA</b>	<b>18.177</b>
Eraikuntza, instalakuntza eta obren gaineko zerga (EIOZ).....	734
<b>ZEHARKAKO ZERGA GUZTIRA</b>	<b>734</b>
Egoitzako gizarte zerbitzuen tasa .....	632
Etterako laguntza zerbitzuaren tasa .....	264
Udal Hautzaindegiaren tasa .....	102
Kontserbatorio eta Musika Eskolaren tasa .....	336
Ibilgailuak jaso eta eramateagatiko tasa .....	187
Herriko kaleetan ibilgailuak aparkatzeagatiko tasa (TAO).....	173
Herri bideak okupatzeagatiko tasa .....	166
Hornidura enpresek lurra, lur azpia eta lur gaina okupatzeagatiko tasa .....	653
Espaloietatik igarotzeagatiko ibilgailuen tasa.....	278
Telefoniako operadoreen konpentsazioa .....	206
Isunak eta zehapenak .....	1.141
Aurreko ekitaldietako itzulketa.....	227
Konpainia eta aseguruaren itzulketa .....	121
Beste sarrera batzuk (< 100 mila euro).....	1.017
<b>TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK GUZTIRA</b>	<b>5.503</b>
<b>1, 2 eta 3 KAPITULUAK GUZTIRA</b>	<b>24.414</b>

“Aurreko ekitaldietako itzulketa” kontuan 122.560 euro erregistratu dira eta EAEko Administrazio Nagusiak 2017ko Gizarte Larrialdietarako Laguntza kontzeptuan osatutako zenbatekoari dagozkio, izan ere Irungo udalerririk kontzeptu honen izenean egindako gastuak gainditu egin du hasiera batean Eusko Jaurlaritzak egindako diru-sarrera. Diru-sarrera honen izaera aintzat hartuta, egokiagoa litzateke 4. kapituluan erregistratzea, “Transferentziek eta Dirulaguntzek eragindako Sarrerak”.



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

#### A.4 TRANSFERENTZIEK ETA DIRULAGUNTZEK ERAGINDAKO SARRERAK

2018ko ekitaldian transferentzia eta dirulaguntza arrunt eta kapitalezkoen kontzeptuan kitatutako eskubideak honako hauek izan dira:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan	
	ARRUNTAK	KAPITALEZK.
<b>ESTATUKO ADMINISTRAZIO OROKORRARENAK</b>	<b>104</b>	<b>-</b>
<b>EAE-KO ADMINISTRAZIO OROKORRARENAK</b>	<b>2.696</b>	<b>391</b>
Garraioan inbertsioa Errentamendua .....	-	200
Gizarte Larrialdietarako Laguntzak .....	636	-
Udal kontserbatorioa.....	432	-
Udal haurtzaindegia .....	189	-
Lanbide, enplegua sustatzeko tokiko ekintzetarako .....	696	-
Udal euskaltegia.....	381	-
Beste batzuk .....	362	191
<b>GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIARENAK</b>	<b>45.855</b>	<b>971</b>
Zerga itunduak - UFFF .....	43.272	-
Etkez etxeko laguntza .....	340	-
Gizarte Zerbitzuen Karteraren aparteko funtsa 2018 .....	272	-
Egoitzetan eta Eguneko zentroetan egonaldi iraunkorrak .....	1.807	-
Gizarteratzeko zerbitzu sozialen zentroa eraikitzea .....	-	200
Artalekuko kiroldegiaeren estalkia.....	-	381
Ikust Alaia kultura ekipamendua eraikitzea .....	-	250
Uranzu pilotalekua zaharberritzea .....	-	100
Beste batzuk .....	164	40
<b>BESTE BATZUK</b>	<b>89</b>	<b>133</b>
<b>GUZTIRA</b>	<b>48.744</b>	<b>1.495</b>

Udalek zerga itunduen diru-bilketan esku hartzen dute. GFAk behin betiko diru-bilketaren konturako entregak egiten ditu eta hurrengo ekitaldiko otsailean likidatzen du. Udalak 2018an kontabilizatutako zenbatekoa bat dator ekitaldiko konturako entregekin, 40,9 milioi euro, gehi 2,4 milioi euro 2018ko likidazio positiboaren kontzeptuarekin.

EAEko Administrazio Orokorretik “Gizarte Larrialdietarako Laguntza” kontzeptuan jasotako dirulaguntzek 2018ko ekitaldirako zehaztutako hasierako diru-izendapena barne hartzen dute, 636.030 eurorena. Alabaina, udalerrian egindako gastuak Udalari esleitu zaion diru-sarrera gaintzen duenean eta udalek erabakitzen dutenean hasierako diru-izendapenak baliabide propioekin osatzea, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 8. xedapen iragankorraren indarrez, Eusko Jaurlaritzak hasierako diru-izendapena gehienera % 30era arte hartuko du bere gain. Irungo Udalean inguruabar horiek gertatzen direnez gero, Eusko Jaurlaritzak 2019an 111.446 euroren zenbateko osagarria eskualdatu dio Udalari.

2018ko abuztuaren 29an GFAk 500.000 euroren dirulaguntza eman zion Irungo Udalari 2018 eta 2019ko aurrekontuen kontura, Museo Ikust Alaia zaharberritzeko eta lanak 2018ko azaroaren 15a baino lehenago abiarazteko baldintzarekin. Udalak obra 2019ra arte abiarazi



ez zuenez gero, GFAk 2018ko ekitaldiari zegozkion dirulaguntzaren 200.000 euro baliogabetu zituen.

Hona hemen 2018ko abenduaren 31n finantzaketa atxikia duten gastuetarako geldikina osatzen duten finantzaketako desbideratze positiboen xehakapena:

KONTZEPTUA	FINANTZ. %	SARRERAK		GASTUAK		DESBIDER.
		LEHENAG.	2018	LEHENAG.	2018	
GFAREN dirulag. Uranzu pilot. zaharb. (ikus A.14).....	14,17	300	100	17	2.195	87
EEEren dirulag. errentam. garraio efizienterako.....	(*)	-	208	-	573	199
GFAREN dirulag. Ikust Alaia kultura ekipamend.....	45,45	-	250	-	-	250
Zabalgune plazako espaloia berritzea.....	100,00	-	110	-	-	110
Beste batzuk (<60 M).....						4
<b>GUZTIRA</b>						<b>650</b>

(\*) Hainbat ehuneko dira, % 1,71etik % 10,26ra doazenak

Irungo Udalak ez ditu kalkulatu Lanbidek Enplegua Sustatzeko Tokiko Ekintzak kontzeptuarekin emandako dirulaguntzei lotutako finantzaketako desbideratzeak; kontzeptu horren izenean 2018ko deialdian emandako kopuru osoa erregistratu du, 641.052 euro, eta 2018an erregistraturiko obligazio aitortuak, berriz, 64.853 euro izan ziren.

## A.5 ONDARE-SARRERAK

Hona hemen Udalak 2018an aitortutako sarreren xehakapena:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan	
	ESKUBIDE	KITATUAK
Administrazioko emakidak.....	1.192	
Finken errentamendua.....	49	
Gordailuen interesak.....	2	
Nekazaritzako eta basoko aprobetxamenduak.....	2	
<b>GUZTIRA</b>	<b>1.245</b>	

Udalak Administrazioko emakiden kontzeptuan 1,1 milioi euro erregistratu ditu, 2015ean prozedura ireki bidez esleitutako kontratutik eratorritako urteko kanonari dagozkionak, Ordutegi kontrolarekin kalean ibilgailuen aparkaldi mugatu eta kontrolatua (TAO) arautzeko eta Pio XII plazan ibilgailuentzako lur azpiko aparkalekua ustiatzeko zerbitzu publikoen kudeaketa bateratuarena.

## A.6 INBERTSIO ERREALEN BESTERENTZEA

Hona hemen Udalak 2018an aitortutako sarreren xehakapena:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan	
	ESKUBIDE	KITATUAK
Orubeak besterentzea .....		16
Hirigintzako aprobetxamenduak .....		514
Kapital eragiketen itzulketa .....		7
<b>GUZTIRA</b>		<b>537</b>

## A.7 LANGILERIA-GASTUAK

Hona hemen kapitulu honen xehakapena Udalaren 2018ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioari, LZn jasotako lanpostu kopuruari eta 2018ko abenduaren 31ko plantillari dagokionez:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan		
	OBLIGAZIO AITORTUAK	LANPOSTU KOP. LZn	PLANTILLA 2018/12/31
Goi kargudunen ordainsariak .....	587	-	13
Behin-behineko langileen ordainsariak .....	308	9	9
Funtzionarioen oinarrizko ordainsariak .....	5.013	367	369
Funtzionarioen ordainsari osagarriak .....	11.243	-	-
Lan kontratupeko langileen ordainsariak .....	1.797	50	47
Aldi baterako lan kontratuko langileen ordainsariak .....	771		58
Gizarte Segurantzza .....	5.453		
Elkarkidetza .....	367		
Aldez aurreko erretiroengatiko kalte-ordainak .....	277		
Beste gizarte-gastu batzuk .....	178		
<b>GUZTIRA</b>	<b>25.994</b>	<b>426</b>	<b>496</b>

### Ordainsariak

Administrazioko langileei 2018ko ekitaldian ordaindutako ordainsariek, 2017ko abenduaren 31n indarrean zeudenen aldean, urteko % 1eko igoera izan dute, gehi % 0,25 gehiago uztailaren 1etik aurrerako eraginarekin, 2018rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko uztailaren 3ko 6/2018 Legean xedatutakoari jarraikiz.

Udalaren Osoko bilkurak 2018ko otsailaren 28an egindako bilkuran onartu zuen Irungo Udalaren zerbitzura diharduten langileentzako helburuen araberrako produktibitate-osagarria onartzea 2018ko ekitaldirako. 2018ko abenduan kontzeptu honengatik ordaindutako kopurua 663.312 euro izan da, aurrekontuetan onartutako soldata masaren % 4,2 txikiagoa.

Udalbatzak 2018ko apirilaren 25eko bilkuran lanpostuen balorazioa onartu zuen, 47 lanpostu eta 89 pertsonena eta 10 urtera arteko atzera-eraginarekin; balorazioak milioi 1 euroren kostua eragin zuen eta atzerapenen likidazioak 2018ko maiatzeko eta abuztuko nominetan ordaindu ziren.

## Enplegu publikoko eta beste hautaketa prozesu batzuetako eskaintzak

Hona hemen 2016-2018 aldian onartutako Enplegu Publikoen Eskaintzetatik eratorritako hautaketa prozesuak:

KATEGORIA	PLAZA KOPURUA	ONESPENA
EPE 2016		
Hiritar. Artatz. Zerb. inf. eta tramit. agen. ....	6	ira-16
Udaltzaina .....	12	ira-16
EPE 2017 .....	12	abe-17
EPE 2018 .....	57	abe-18/19
<b>UDALA GUZTIRA</b>	<b>87</b>	

2018ko uztailean Hiritarrak Artatzeko Zerbitzuko informazio eta tramitazioko 6 agente karrerako funtzionario izendatu ostean, eta Donostiako administrazioarekiko auzietarako 3. Epaitegiaren 26/2019 epaia betez, izendapen horiek ezeztatu ziren, jarduketak merezimenduen balorazio faseraino atzera-eramanez eta prozedura berriz abiaraziz.

2018an administrazioarekiko 5 auzi-errekurtso jarri dira Udaltzaingoko agenteen 12 plaza betetzeko abiarazitako deialdi publikoaren eta oinarri-arauden aurka, 2019ko abenduan ebazteko dagoena.

## Altak eta bajak

Udalan ekitaldian izan diren alta eta bajen xehapena honakoa da:

	Kopurua	
	ALTAK	BAJAK
Karrerako funtzionarioa .....	1	15
Bitarteko funtzionarioa .....	360	348
Plaza hutsaren gaineko bitarteko funtzionarioa .....	36	25
Ordezkapenatarako bitarteko funtz. (gaixoaldia, lizentzia, baim., oporr).....	281	278
programetako bitarteko funtzionarioa .....	23	22
Lan metaketarako bitarteko funtzionarioa.....	20	23
Langile lan kontratudun finkoak .....	1	5
Aldi baterako lan-kontratuko langileak .....	82	76
Enplegua sustatzeko aldi baterako lan-kontratuko langileak.....	38	35
Aldi baterako lan-kontratuko beste langile batzuk .....	44	41
<b>GUZTIRA</b>	<b>444</b>	<b>444</b>

2018ko ekitaldian Udaleko 15 funtzionario behin betiko baja izan dira erretiroagatik eta horietatik 10ek alde aurretik hartu dute erretiroa, eta guztira 276.353 euro jaso dituzte erretiro sariagatik kalte-ordain gisa, zeina salbuetsizat jo delako, ez baita PFEZen aitopenen oinarrietan barne hartu.



## A.8 ONDASUN ARRUNTEN ETA ZERBITZUEN KONTRATAZIOA

Kapitulu honetan erregistratzen dira ondasun arrunt eta zerbitzuen kontratazioari dagozkion gastuak. 2018an kontabilizatu diren kontzeptu esanguratsuenak hauek izan dira:

Euroak milakotan	
KONTZEPTUA	OBLIGAZIO AITORTUAK
<b>Errentamenduak</b> .....	<b>653</b>
<b>Azpiegituren eta ondasun naturalen mantentze-lanak</b> .....	<b>1.061</b>
Argiteriaren mantentze-lanak .....	388
Gainerakoa (< 150 mila euro) .....	673
<b>Eraikinen eta bestelako eraikuntzen mantentze-lanak</b> .....	<b>588</b>
<b>Makineria, instalak. eta tresneriaren mantentze-lanak</b> .....	<b>335</b>
<b>Beste mantentze-lan batzuk</b> .....	<b>345</b>
<b>Hornidurak</b> .....	<b>2.261</b>
Hornidura elektrikoa .....	1.377
Gasa .....	189
Elikagaiak .....	406
Bestelako hornigaiak .....	289
<b>Komunikazioak</b> .....	<b>296</b>
Telefono-zerbitzua .....	107
Posta bidezkoak .....	189
<b>Hainbat gastu</b> .....	<b>3.232</b>
Publizitatea eta propaganda .....	154
Jarduera soziokulturalak .....	1.941
Gainerakoa .....	1.137
<b>Kanpoko enpresek egindako lanak</b> .....	<b>12.637</b>
Udal eraikinen garbiketa .....	2.240
Etxez etxeko laguntza eta tutoretzapeko pisuak .....	1.564
Oiasso Museoaren kudeaketa .....	284
Gizarte eta kulturako beste kontratu batzuk .....	1.502
Kirol instalazioen irekiera, itxiera eta kontrola .....	244
Zaintza, gordailuak eta biltegiatzea .....	354
Azterketak eta lan teknikoak .....	504
Bidaiarien hiriko garraioa .....	1.033
Berdeguneen zaintza .....	1.531
Argiteriaren mantentze-lanak .....	418
Zuhaitzen mantentze-lanak .....	354
Adinekoentzako laguntza zerbitzuak .....	1.188
Gainerakoa .....	1.421
<b>Gainerakoa</b> .....	<b>427</b>
<b>GUZTIRA</b> .....	<b>21.835</b>



## A.9 TRANSFERENTZIAK ETA EMANDAKO DIRULAGUNTZAK

2018ko ekitaldian, Udalak emandako transferentzia eta dirulaguntza arrunt eta kapitalezkoek eragindako obligazioak erregistratu ditu; hona hemen xehakapena:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan	
	ARRUNTAK	KAPITALEZKOAK
<b>TRANSFERENTZIAK</b>	<b>6.478</b>	<b>415</b>
Bidasoa-Txingudi Mugarteko Partzuergoa .....	146	-
Txingudiko Zerbitzuak (kale garbiketa) .....	(*) 3.665	(*) 334
Bidasoa Bizirik (kudeatzeko agindua: Bidasoa Bizirik, enplegua, kom.).....	(*) 1.523	(*) 46
Bidasoako Erakustazoka SA.....	(*) 475	(*) 35
IRUNVI (Enkargua eta kudeatzeko mandatu: sustapen zerb. eta eraik. ITE) .....	(*) 647	-
Bestelako txikiagoak (70 mila eurotik beherakoak) .....	22	-
<b>IZENDUNAK</b>	<b>970</b>	<b>-</b>
Luis Mariano Elkartea Lirioa.....	(*) 70	-
Real Unión Club SAD (udal jabetzako Gal estadioa erabili eta ustiatzeko emakidagatik) .....	(*) 90	-
8 Gobernuz kanpoko erakunderi laguntzak eta garapenerako kolaborazioa .....	288	-
Hitzarmenak 5 kirol talderekin .....	206	-
Bestelako txikiagoak (70 mila eurotik beherakoak) .....	316	-
<b>LEHIA</b>	<b>2.730</b>	<b>540</b>
Enpleguaren sustapena eta Lanbide 2017ko funtsekin kontratazioarako laguntzak .....	154	-
30 urtetik beherako enplegatu eta laneratzeko zailtasunak dituzten pertsonen kontratazioa .....	(*) 68	-
Irunen errolatutako langabeen kontratazioa.....	(*) 151	-
Eraikinetan sarbidea eta efizientzia energetikoa izateko laguntzak .....	(*) 340	(*) -
Oinarritzko osasun-laguntza.....	192	-
Eskola materialaren erosketak.....	159	-
Gizarte Larrialdietarako Laguntzak .....	(*) 622	-
Familiei beste laguntza batzuk, gizarte-larrialdietako laguntzen irizpide berberekin .....	(*) 236	-
Kirol jarduera eta zerbitzuetarako laguntzak (5 deialdi 2018) .....	155	-
Garapenerako laguntza-proiektuak .....	93	-
Aurreko ekitald. 4 deialdiren obrak/jarduerak (70 mila eurotik gorakoak) .....	-	436
Bestelako txikiagoak (70 mila eurotik beherakoak) .....	560	104
<b>BESTERIK</b>	<b>244</b>	<b>-</b>
Alderdi politikoei ekarpenak.....	161	-
Bestelako txikiagoak (70 mila eurotik beherakoak) .....	83	-
<b>GUZTIRA</b>	<b>10.422</b>	<b>955</b>

(\*) Aztertutako transferentzia eta dirulaguntzak.

Transferentzia arruntaren kapituluan “Txingudiko Zerbitzuen Mankomunitatearen” alde aitortutako obligazioak dira honek Irun eta Hondarribiko udalerrietan kale-garbiketa zerbitzua ematean egindako gastu arruntei dagokienez, Irungo Udalak egindako konpentsazioa. Kale-garbiketa zerbitzua emateko eskumenak aipatutako Mankomunitateari eskuordetu zizkieten kide diren bi udalek.



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## A.10 INBERTSIO ERREALAK

2018an kontabilizatu diren kontzeptu esanguratsuenak hauek izan dira:

		Euroak milakotan
KONTZEPTUA		OBLIGAZIO AITORTUAK
<b>Azpiegitura eta urbanizazioa.....</b>		<b>10.111</b>
Uranzu pilotalekua zaharberritzea .....		2.186
Tenis Txingudiko instalazioak egokitu eta hobetzea eraikina eta igerilekua.....		1.750
Tenik Txingudiko instalazioak hobetzea: pistak eta bideak .....		416
Artaleku kiroldegiko estalkia berritzea.....		849
Azken Portu eta Behobiaren arteko ibilbidearen eta bidegorriaren 1. fasea .....		968
Hondarribi kalea urbanizatzea.....		432
Gainerakoa.....		3.510
<b>Eraikinak eta bestelako eraikuntzak .....</b>		<b>1.190</b>
<b>Makineria, instalak. eta tresneria .....</b>		<b>1.034</b>
4 hiri autobus elektrikoren fabrik. hornid. eta mant.-lanak eta karga guneak .....		566
Gainerakoa.....		468
<b>Altzariak eta tresnak.....</b>		<b>218</b>
<b>Informazio prozesuetarako ekipoak.....</b>		<b>143</b>
<b>Gainerakoa .....</b>		<b>227</b>
<b>GUZTIRA</b>		<b>12.923</b>

## A.11 PASIBO FINANTZARIOAK

Honekin baterako taulan zehazten da, erakunde mailegu-emaielen arabera, Udalak 2018ko abenduaren 31n zuen zorra, mailegutik ordaintzeko dagoen printzipala eta amortizazio-baldintzak:

									Euroak milakotan
BANKETXEA	EMANDAKO KOPURUA	%	EPEMUGAK		ZORRA		ZORRA		
			URTE KOP.	AZK.	17.12.31	BERRIAK	AMORTIZ.	18.12.31	
Dexia Credit Local .....	7.000	3,7	20	ira 2024	2.722	-	389	2.333	
Dexia Credit Local .....	7.500	3,26	20	mart 2025	3.333	-	416	2.917	
Dexia Credit Local .....	4.000	euribor+0,15	20	apir 2026	2.000	-	222	1.778	
Dexia Credit Local .....	6.000	3,49	20	eka 2027	3.333	-	333	3.000	
Kutxabank .....	1.628	euribor+0,15	20	aben 2024	376	-	54	322	
Kutxabank .....	3.446	euribor+0,15	20	apir 2025	1.536	-	205	1.331	
Kutxabank .....	847	euribor+0,15	20	mai 2026	417	-	49	368	
Kutxabank .....	1.482	euribor+0,15	20	uzt 2027	853	-	88	765	
Kutxabank .....	2.935	euribor+1	15	abu 2024	1.581	-	230	1.351	
Kutxabank .....	4.493	euribor+1,5	15	abe 2024	2.401	-	331	2.070	
Laboral Kutxa.....	847	euribor+0,10	20	apir 2026	400	-	47	353	
Laboral Kutxa.....	1.482	euribor+0,10	20	ira 2027	802	-	82	720	
<b>FINANTZA-ERAKUNDEEKIKO ZORRA GUZTIRA</b>					<b>19.754</b>	<b>-</b>	<b>2.446</b>	<b>17.308</b>	



Udalak aurreko maileguren finantzaketa-kostua atxikitako likidazioko “Gastu finantzarioak” kapituluan erregistratu du, 367.297 euroan. 2018ko abenduaren 31n 160.046 euroren interesak zorpetu dira eta horien epemuga eta kontularitzan erregistroa 2019an egin da.

## A.12 AURREKONTUKO ZORDUNAK

Hona hemen 2018ko abenduaren 31n kobratzeko dauden Udalak erregistraturiko aurrekontuko eskubideen osaera eta antzinatasunaren xehakapena kapituluka:

KAPITULUAK	Euroak milakotan			
	2016 eta lehen.	2017	2018	GUZTIRA
Zerga zuzenak.....	2.123	386	1.200	3.709
Zeharkako zergak.....	101	105	45	251
Tasak eta bestelako sarrerak.....	178	108	1.140	1.426
Transferentzia arruntak .....	9	319	3.906	4.234
Ondare-sarrerak .....	15	-	109	124
Inbertsio errealeen besterentzea.....	31	41	74	146
Kapital transferentziak .....	243	288	1.097	1.628
Aktibo finantzarioak.....	1	15	50	66
<b>GUZTIRA</b>	<b>2.701</b>	<b>1.262</b>	<b>7.621</b>	<b>11.584</b>

Udalak 2018ko ekitaldi itxieran, Diruzaintza Geldikinetik 4,1 milioi euro kendu ditu kaudimen-gabeziatarako zuzkidura kontzeptu gisa; horiek, batetik, 24 hilabetetik gorako antzinatasuna duten bermerik gabeko saldo guztiei dagozkie, eta, bestetik, 24 hilabetetik beherako antzinatasuna duten zorrei kobrantzako ehuneko historikoak aplikatu izanaren emaitzari.

## A.13 AURREKONTUZ KANPOKO ERAGIKETAK

Hona hemen Udalean aurrekontuan ez sarrera ez gasturik eragiten ez duten eragiketengatik kobratu eta ordaindu beharreko kontuen xehakapena 2018ko abenduaren 31n:

	Euroak milakotan
<b>ZORDUNAK</b>	<b>67</b>
BEZarengatiko zordunak .....	67
<b>HARTZEKODUNAK</b>	<b>3.326</b>
Ogasun publikoa, BEZagatik hartzekodun .....	12
PFEZ atxikpenak .....	1.151
Jasotako bermeak epe luzera .....	789
Gizarte Segurantzako enpresa kuota.....	618
Jasotako bermeak epe labur.....	494
Epe laburrera jasotako gordailuak .....	221
Bestelako hartzekodunak .....	41
<b>SALDO GARBI HARTZEKODUNA</b>	<b>3.259</b>



Udalak ez du aurrekontuz kanpoko kontuetan barne hartu Bidaso Bizirik-ek itzultzeko dituen diruzaintzako aurrerakinen zor-saldoa, 2018ko abenduaren 31n 270.000 euro dena.

## A.14 KONTRATAZIOAREN ANALISIA

2016-2018 aldian 37,4 euroan esleitutako 14 espedienteko lagin baten bitartez kontratu mota bakoitzari ezargarriak zaizkion legezko prozedurak aztertu ditugu:

KONTRATUA	ESLEIPENA			EXEKUZIOA	
	Data	Moldea	Zenbat.	2018	AKATSAK
<b>ZERBITZUAK</b>					
1. Udal eraikinen eta aretoen garbiketa (2 urte) .....	aza-16	Irekia	(*) 5.558	2.240	A1
2. Etxez etxeko lagun. eta etx. komunit. arreta (2+2) .....	urr-17	Irekia	(*) 3.022	1.564	A6
3. Berdegun. mant.-lanak, zaint. eta hobek. (2+2) .....	urt-17	Irekia	1.476	1.531	B1
4. Adinekoegi laguntza eta harrera (2+2) .....	abu-17	Irekia	(*) 2.217	1.188	
1. aldaketa .....	api-18		21		
2. aldaketa .....	abu-18		78		
<b>HORNIDURAK</b>					
5. Hiri autobusak fabrikatu, hornitu eta mant.-lanak eta kargaldi arineko sistemaren mant.-lanak .....	eka-18	Irekia:			
		Hornid.	566	566	A6
		mant.-lanak	52	-	A6
		errentamen.	2.359	6	A6
<b>ZERBITZU PUBLIKOEN KUDEAKETA</b>					
6. Irungo Oiasso Museoen kudeaketa (6 hilabete) .....	urt-18	PPN	153	148	A2,6
7. Irungo Oiasso Museoen kudeaketa (1 urte) .....	uzt-18	PPN	314	135	A2,3,6
8. Hiri garraio kolektiboaren kudeaketa (5 urte) .....	urr-17	Irekia	(*) 10.752	553	A5,6
<b>OBRAK</b>					
9. Uranzu pilotalekua zaharberritzea (13 hilabete).....	urr-17	Irekia	4.236	-	C1,3
Udalak finantzatua .....			4.191	2.186	
Txingudiko zerbitzuen finantzaketa .....			45		
10. Tennis Txing. Instal.: eraik. eta igeril. gunea (7 hilab.).....	abu-17	Irekia	1.943	1.750	C1
11. Tennis Txing. Instalaz.: pistak eta bideak (2,5 hilab.).....	mar-18	Irekia	433	416	A4, C1
12. Azken Portu-Behob. ibilb. eta bideg.1. fasea (9 hilab.) .....	mar-17	Irekia	1.694	968	C1
13. Artaleku kiroldegiko estalkia (6,5 hilabete) .....	ots-18	Irekia	1.005	849	
14. Hondarribi kalea urbaniz. 1-17 zk. (7,5 hilab.).....	api-18	Irekia	1.523	-	C1,2,3
Udalak finantzatua .....			1.031	432	
Txingudiko zerbitzuen finantzaketa .....			492		
<b>GUZTIRA</b>			<b>37.402</b>	<b>14.532</b>	

(\*) Aleko prezioetan esleitua Esleipen zenbatekoan gehieneko aurrekontua guztira adierazi dugu

PPN: Publikotasundun Prozedura Negoziatua





Herri-Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

Euroak milakotan		
AKATSAK	ESPEDIENTE KOP.	ESLEIPENAREN ZENBATEKOA
<b>A ESPEDIENTEA</b>		
1. Puntuak esleitzean irizpide ez-proporzionalak.....	1	5.558
2. BABAn finkatutako subrogazio obligazioa, hitzarmen ezargarran jaso gabea .....	2	467
3. Esleipen-prozedura ez-legezkoa.....	1	314
4. BABAK baliabide bakarra ematen du kaudimena egiaztatzeko .....	1	433
5. ETAK justifikatu gabeko baldintza barne hartzen du .....	1	10.752
6. Kontratazio mahaiaik kaudimenaren betekizunak egiaztatu gabe.....	5	17.218
<b>B ESLEIPENA</b>		
1. Behin betiko bermearen kopuru okerra .....	1	1.476
<b>C EXEKUZIOA ETA HARRERA</b>		
1. Exekuzioak aurreikusitako epea gainditu du luzapenik formalizatu gabe.....	5	9.829
2. Izapidetu gabeko aldaketa.....	1	1.523
3. Kontratuaren egiazko exekuziora doitu gabeko urtekoak .....	2	5.759

Gainera, 2018ko ekitaldian lehenagoko kontratuen hirugarren esleipendunen bitartez honako epe eta zenbatekoen zerbitzuak eman direla ikusi da, behin horiek iraungi ondoren kontratu berria esleitu arte jarraitzeko onartu ostean:

Euroak milakotan					
	<u>AURREKO KONTRATUA</u>			<u>KONTRATU BERRIA</u>	
	EPEMUGA	ALDIA	ZENBAT.	ESPED. HAS.	ESLEIP.
Ama Xantalen bazkariak egin eta hornitzeko zerbitzua (*) .....	04.06.18	eka-abe	226	14.12.18	-
Kaleetan ekipo eta instal. elektr. mant., hobetu eta eraiki (*) .....	30.09.18	urr-abe	182	20.02.19	03.07.19
Ibilgailuak eraman, ibilgetu eta gordailatzeko zerb. (**).....	10.07.18	uzt-abe	140	20.06.18	28.11.18
Udal eraikinen eta aretoen garbiketa (**) .....	15.12.18	abe.	90	24.10.18	30.01.19
<b>UDALA GUZTIRA</b>	<b>638</b>				

(\*) Aurreko kontratua iraungi ostean abiarazia (II.1 idazpurua). Zenbatekoa: 408.330 euro.

(\*\*) Kontratua iraungitzeko 3 hilabete baino gutxiago falta zela abiarazia (III.1.4 idazpurua). 229.587 euro.

Udalak 2018ko ekitaldian egindako gainerako gastuak aztertzean ikusi dugu honako kasu hauek kontratu txiki modura edo prozedura laburtu bidez izapidetu direla; ordea, horien ezaugarriak aintzat hartuta, egokiagoa litzateke prozedura ireki modura edo baita aleko prezioetan ere lizitatzea:



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

Euroak milakotan	
KONTZEPTUA	2018ko gastua
Zoladurak eta kaleen mantentze-lanak .....	94
Alokairu, soinu-instalazio eta argiteriarekin lotutako askotariko zerbitzuak .....	201
Ospakizunetarako standak muntatu eta birjartzea .....	65
Landareen hornidura .....	73
Pintura materialak hornitzea eta lanak .....	162
Material elektrikoaren hornidura.....	92
<b>GUZTIRA</b>	<b>687</b>

## A.15 SOZINETATE PUBLIKOAK

### A.15.1 LANGILERIA

2018ko abenduaren 31n langile- eta plantilla-gastuaren xehakapena honakoa da:

Euroak milakotan				
SOZINETATEA	GIZARTE		GIZARTE	GUZTIRA
	ORDAINS.	SEGURAN.	GASTUAK	
Bidasoa Bizirik.....	1.462	413	23	1.898
Bidasoako Erakustazoka SA.....	8	1	1	10
IRUNVI .....	187	55	1	243
BLAIA .....	211	48	3	262

Plantilla 12.31n				
SOZINETATEA	GOI	FINKO	ALDI BATER.	GUZTIRA
	ZUZENDAR.	MUGAGAB.		
Bidasoa Bizirik.....	-	33	9	42
Bidasoako Erakustazoka SA.....	1	-	-	1
IRUNVI .....	1	2	3	6
BLAIA .....	1	4	-	5
<b>GUZTIRA</b>	<b>3</b>	<b>39</b>	<b>12</b>	<b>54</b>

Udal sozietate publiko guztiek euren langileei Udalak aplikatutako ordainsari igoera bera aplikatu diete, Bidasoako Erakustazoka SAK izan ezik, handiagoa izan baita igoera, ordainsariak 2016an Ficoba Fundazioan aplikatutako igoerari egokitu izanaren ondorioz (zeinetan dedikazio-ehunekoa % 90 baita).

Bidasoa Bizirik eta BLAIAk langile guztiei produktibitate-osagarri bat ordaindu diete, Udalak bezalaxe, hurrenez hurren 54.088 eta 8.813 eurorenak.



## A.15.2 KONTRATAZIOA

BEZa kenduta, 396.885 euroan esleitutako 4 espedienteko lagin baten bitartez kontratu mota bakoitzari ezargariak zaizkion legezko prozedurak aztertu ditugu.

KONTRATUA	ESLEIPENA			Euroak milakotan	
	Data	Moldea	Zenbat.	EGIK. 2018	AKATSAK
<b>IRUNVI</b>					
1. Agerre kalea, 2 eta 4an dagoen eraikina eraisteko proiektua .....	ots-18	PGN	25	20	
2. Lastaola Postetxea 8.3.04 eremuan HAPB idaztea .....	api-18	PGN	29	9	
<b>BIDASOA BIZIRIK</b>					
3. Irun eta Hondarribian turismoari arreta eta inform. zerb. lagun. ....	eka-18	Irekia	(*) 189	49	A1,2
4. Bidasoa Biziriken aretoen garbiketa.....	aza-17	Irekia	(*) 154	36	A1,3
<b>GUZTIRA</b>			<b>397</b>	<b>114</b>	

(\*) Aleko prezioetan esleituia Esleipen zenbatekoan gehieneko aurrekontua guztira adierazi dugu

AKATSAK	ZENBATEKOA	
	ESPEDIENTE KOP.	ESLEIPENA
<b>A ESPEDIENTEA</b>		
1. BABAK ez ditu argi eta zehatz adierazten balizko aldaketen baldintzak .....	2	343
2. Formulak murriztu egiten du prezio irizpidearen haztapena eta eskualdean eskarmentua izatea eskatu eta balioztatzen da .....	1	189
3. BABAK kaudimen irizpideak barne hartzen ditu, gutxienekoak finkatu gabe baliabide materialak balioztatzean.....	1	154

2018ko ekitaldian udal sozietate publikoek egindako gainerako gastuak aztertzean, honako ez-betetze hauek edo kontratazio araudiko akats hauek azaleratu dira:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan	
	2018ko gastua	Akatsa
<b>IRUNVI</b>		
El Pinar aparkalekuaren kudeaketa eta administrazioa .....	12	A3
<b>BIDASOAKO ERAKUSTAZOKA</b>		
Instalazioen kontrola eta segurtasuna .....	134	A1
Garbiketa zerbitzua .....	45	A1
Instalazio elektrikoaren mantentze-lanak .....	18	A1
Eraikinaren klimatizazioaren mantentze-lanak.....	20	A1
Energia elektrikoaren hornidura (urtebete).....	81	A2
Energia elektrikoaren hornidura (2 urte).....	32	A2
<b>BLAIA</b>		
Instalazioen garbiketa.....	10	A3
A1: Mugaeguneratutako kontratuen exekuzioa Gastu errepikaria, berariaz onartu gabe. Zenbatekoa: 217.541 euro.		
A2: Eskaintzak eskatuta kontratatuak. Zenbatekoa aintzat hartuta, publikotasundun prozedura beharko luke izan. Zenbatekoa: 113.340 euro.		
A.3: Gastu errepikariak Denboran duen jarraikortasuna aintzat hartuta, hobe da epe luzeagoetarako lizitatzea. Zenbatekoa: 21.690 euro.		



## ALEGAZIOAK

### TXOSTENAREN ONDORIOEN GAINEKO ALEGAZIOAK

#### II. ATALA. IRITZIA

##### II.1 ATALA. LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

1. paragrafoari dagokionez: Bi zerbitzu ematen jarraitzea, haien kontratuak amaitu ondoren.

Erabili zen nahitaezko luzapenaren mekanismoa ondo egokitzen da SPKL berriaren 29.4 artikulua jasotzen dituen suposuetara: "kontratuaren mugaeguneari ez denean kontratu berririk egin, kontratistak eman beharreko prestazioaren jarraitutasuna bermatzen duenik, kontratazio organoarentzat aurreikusi ezinezkoak ziren eta adjudikazio prozeduran gertatu diren gertakarietatik heldu diren gorabeheren ondorioz, eta interes publikoko arrazoiak daudenean prestazioa ez eteteko, jatorrizko kontratua luzatu ahalko da kontratu berria egikaritzen hasten den arte".<sup>1</sup>

9/2017 Lege berria, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena (SPKL), onetsi eta indarrean sartzeak paradigma-aldaketa dakar kontratazio publikoan, eta egoera horrek sektore publiko osoari eragiten dio, eta, beraz, Irungo Udalarari ere bai. Dagozkion espedienteak izapidetzeko atzerapenen arrazoiak da udal-kontratazioan erabiltzen diren ereduak, txantiloak eta prozedurak egokitu beharra dagoela, eta eguneratu egin behar direla lege berritik ondorioztatzen zen kontratazio-paradigma berria kudeatzen duten arlo guztiak, eta, ondorioz, orain arte erabili diren esleipen-irizpideak sakon berrikusi behar izan dira.

2018ko kontratazioak 35 milioi inguruko aurrekontu-egikaritzea eman zuen gastu arruntaren eta inbertsioaren artean. 2018an, kontratazio arrunteko 100 espediente baino gehiago izapidetu ziren Irungo Udalean, eta horiez gainera, mota eta irismen desberdineko beste prozedura txiki asko ere egikaritu ziren.

Bietan, aipatu behar da kontratu horien prestazioa ezin dela eten oinarritzko zerbitzuak direlako: Janaria Prestatu eta Hornitzeko Zerbitzua, Sortaka (I. sorta: Ama Xantalen egoitza eta eguneko zentroa; II. sorta: Etxez etxeko laguntza zerbitzua) eta Ingurumen Ikuspegia Kontuan Hartuta (2018zaun0034), Bide Publikoetako Ekipo eta Instalazio Elektrikoak Eta Elektronikoak Mantendu, Kontserbatu eta Hobetzeko Zerbitzua (2018ZAUN0001).

Lehenengo kasuan, oinarritzko zerbitzu bat da, honako hauek aplikatzearen ondoriozkoa: "Zorro dekretua" (Eusko Jaurlaritzaren Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroa arautzen duen urriaren 6ko 185/2015 Dekretua) eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin 2017. urteko martxoaren 17an sinatutako programa kontratua. Bi zerbitzuak (bai etxez etxeko laguntza zerbitzua, bai adinekoentzako egoitza eta eguneko zentroa), beraz, Udalaren eskumenekoak dira, lehenengo kasuan zuzeneko esleipenagatik eta bigarrenean, aldundiak bere gain hartu arte. Kasu honetan, horrenbestez, interes publikoko

---

<sup>1</sup> SPKL berriko aipatutako 26.4 artikulua adierazten du "betiere kontratu berriaren lizitazio iragarkia gutxienez hiru hilabeteko aurrerapenez argitaratu bada jatorrizko kontratuaren amaiera datarekin"



arrazoi handiak daude, eta Udalak herritarrei zerbitzu hori ematen jarraitu behar du, eta, ondorioz, indarrean dagoen kontratua luzatu egin behar da kontratu berria formalizatu arte.

Ama Xantalen Zentrorako Janaria Prestatu eta Hornitzeko Zerbitzuaren kasuan, 2018ko ekainaren 4an bukatu zen lizitazio berria eragin duen espedientea (2014 ZAPA0001). Lizitazio berria arautu behar zuen espedientea 2017ko abenduaren 28an ireki zen (2017 ZAPA0028). Aurrerapen nahikoa izan beharko zen zirkunstantzia arruntetan, baina lege berria indarrean sartzeaz epe hori gutxiegia gertatu zen. 2018ko apirilaren 24an, Gizarte Ongizate Alorreko zuzendariak txostena egin zuen, honako hau adierazteko: "Une honetan, prozedura irekiaren bidezko beste lizitazio prozedura bat izapidetzen ari da, eta ez da aurreikusten lizitazio hori oraingo kontratuaren indarraldian esleitzea". Sektore Publikoko Kontratuen Lege berria indarrean sartu zenean, ereduak, txantiloak eta prozedurak egokitu egin behar izan ziren, eta horrek atzeratu egin zuen jatorrizko espedientearen tramitazioa, eta, txantilo berriak prest zeudenean, beste espediente bat ireki zen 2018ko maiatzaren 11n.

Bigarrenean, Bide Publikoetako Ekipo eta Instalazio Elektrikoen eta Elektronikoen Mantentze, Kontserbazio eta Hobetze Zerbitzuaren (2018ZAUN0001) kasuan, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen (TAOAL) 25.2. artikulutik (trafikoa, semaforoei dagokienean) eta 26.1.a artikulutik (argiteria publikoa) dator oinarritzko izaera. Lizitazio berria ekarri duen espedientea (2014ZAPB0001) 2018ko irailaren 30ean bukatu zen. Lizitazio berria arautuko zuen espedientea 2018ko apirilaren 3an ireki zen (2018ZAUN0001). Aurrerapen nahikoa izan beharko zen zirkunstantzia arruntetan, baina lege berria indarrean sartzeaz epe hori gutxiegia gertatu zen. Sektore Publikoko Kontratuen Lege berria indarrean sartzeak ereduak, txantiloak eta prozedurak egokitzeko beharra ekarri zuen, eta horrek atzerapena ekarri zuen jatorrizko espedientearen tramitazioan. Ondorioz, 2018ko abenduaren 18an sinatu zen espedienteari hasiera ematen dion behin betiko beharraren txostena.

2. paragrafoari dagokionez: Bidasoko Erakustazoka SAK mugaeguneratutako kontratuak burutzea.

2018ko ekitaldiko sozietatearen urteko kontuen ganean egindako auditoriaren testuinguruan, kontratazio-prozedurak aztertu ziren. Antzemandako hutsetatik abiatuta, erregularizazio-prozesu bat jarri zen abian, eta horren ondorioz, Euskadiko kontratatzailearen perfilaren eta kontratazio-plataformaren erabilera normalizatu da, eta prozedura arruntaz ere lizitatu dira orain arte beste kontratazio-modalitate batzuen bidez kudeatzen ziren zenbait kontratu.

Sozietateak FICOPA fundazioarekin batera eramaten du aurrera bere kontratu jarduera. 2019 eta 2020an zehar honako kontratu hauek lizitatu eta, hala bazegokion, esleitu dira:

- instalazioen kontrola eta segurtasuna: 2. lizitazioa, lehenengoa eman gabe geratu baitzen, 2020ko otsailaren 25eko Administrazio Kontseiluaren akordioagatik,
- garbiketa: esleipena, 2020ko ekainaren 18ko Administrazio Kontseiluaren akordioagatik.



Herri-Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

- instalazioen mantentze lanak: lizitazioa, 2020ko otsailaren 25eko Administrazio Kontseiluaren akordioagatik,
- energia elektriko hornitzaia: Gipuzkoako Foru Aldundiko kontratazio zentralari atxikita egindako esleipena, 2020ko ekainaren 18ko Administrazio Kontseiluaren akordioagatik.

Alarma egoeraren deklarazioak eragindako epe etendurak atzerapenak ekarri ditu espedienteen tramitazioan (batzuk eman gabe utziak zirenak berriz ere lizitatu behar izan dira), eta, horren ondorioz, espediente horietako bi oraindik esleitzeko daude.

Sozietateak FICOBA Fundazioarekin batera eramaten du aurrera bere kontratu jarduera, eta Euskadiko kontratazio publikoko plataforman erregistratzen du, FICOBA Fundazioa botere esleitzailaren profilean.

## II.2 ATALA. URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA

1. Paragrafoari dagokionez: 2017ko eta 2018ko ekitaldietako Balantzea, Eraitzen kontua eta Memoria ez dira onartu.

Azken ekitaldietan, nabarmen handitu da kontu hartzailearen arloko lan karga, honako arrazoi hauengatik, besteak beste: irismenari buruzko arau aldaketak, 2/2012 Lege Organikoa indarrean jartzearen ondoriozko informazioa emateko betebeharrak, toki erakundearen kontabilitatea abenduaren 15eko 86/2015 Foru Dekretuan jasotako kontabilitate esparrura egokitu beharra, dekretu horrek onartzen baitu Gipuzkoako toki erakundearen kontabilitate esparrua (hura 2016ko urtarrilaren 1ean sartu zen indarrean, eta eragina izan zuen 2016ko ekitaldiari dagokionez 2017ko ekitaldian jaulkitako urteko kontuetan), 424/2017 Errege Dekretua eta 32/2018 Foru Dekretua, biak ere toki erakundearen barne kontrolaren araubide juridikoari buruzkoak (estatu mailakoa lehena eta Gipuzkoako Lurralde Historikokoa bigarrena), 39/2015 Legea, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearena, eta 40/2015 Legea, sektore publikoaren araubide publikoaren, biak urriaren 1ekoak, edo 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, sektore publikoko kontratuei buruzkoa.

Giza baliabide gehiago izateko, Kontu hartzailezako eta Kontabilitateko teknikari plaza bat aurreikusi zen 2017. urteko ekitaldiari dagokion lan eskaintza publikoan, bitarteko izendapenekin bete izan dena prozedura arruntaren bidez betetzen zen bitartean. Hala ere, izendapenen behin-behinekotasunak ez du arindu baliabideen eskasia Kontu hartzailezako arloan, eta, horren ondorioz, zeregin batzuk atzeratu egin dira, beste udal arlo batzuek lagundu izan arren. Hautaketa prozedura amaitzear dago gaur egun, eta probak gainditu dituzten hautagaien merezimenduen balorazioa baino ez da gelditzen egiteko. Horrenbestez, indarrean dagoen araudiak ezarritako epeetan formulatu eta onartu beharko liriteke urteko kontuak.



2. paragrafoari dagokionez: Blaian periodifikatu beharreko diru sarrerak.

2019. ekitaldiko kontuen itxierak (2019ko uztailaren 14ko administrazio kontseiluak formulatuak) jada jaso du HKEEren txostenean adierazitako zuzenketa.

### **III. ATALA. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO GOGOETA BATZUK**

#### **III.1. ATALA. UDALA**

##### **III.1.1 ATALA. AURREKONTUA, ALDAKETAK ETA KONTABILITATEA**

1. paragrafoari dagokionez: Segidako txertaketak.

Hain zuzen ere, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren (21/2003 FA) 32.4 artikuluan hauxe adierazten da: "Kreditu txertaketak eransten diren ekitaldiaren barruan erabili beharko dira, eta geroago ezin daiteke txertaketa gehiagorik egin, helburudun sarreren bitartez finantzatzen diren kapital eragiketak direnean izan ezik". Kasu honetan, D faseko gastu proiektuak dira, tramitazioaren ondorioz O fasera iritsi ez direnak ekitaldiaren amaieran.

Kasu batzuetan, dirulaguntzak emateko gastu espedienteak dira, justifikazio epea hurrengo ekitaldira arte dutenak. Frogagiriak aurkeztu ondoren, kudeaketa arloen esku uzten dira eta haiei buruzko iritzia ematen da eta ondoren fiskalizatu egiten dira. Horrek batzuetan atzeratu egiten du behin betiko likidazioa.

Beste kasu batzuetan, kontratazio espedienteak dira (gastu arruntekoak edo inbertsiokoak), eta espediente horien izapideak (txostenak egitea, lizitazioen publikitatea, esleitu arte beharrezkoak diren gutun azalak eta txostenak irekitzea, balizko errekurtsioak, hala badagokio, eta formalizazioa) eta behar bezala gauzatzeko lana luzatu egiten dira, eta, horren ondorioz, bigarren txertaketa egin behar izaten da. Kontuan hartu behar da Sektore Publikoko Kontratuen Legea indarrean sartzeak eragina duela izapidetze erritmoetan, are gehiago gastu espedienteak ekitaldiko azken lauhilekoan onartutako kreditu aldaketa baten ondorio badira. Egiaztatu ahal izan den bezala, araudian bertan ezarritako epeak izapidetze eta betetze hutsak eta kasuan kasuko proiektuaren aurreikusitako iraupenak, nahi baino gehiagotan, exekuzioa ekitaldi bat baino gehiago atzeratzea eragiten du, eta, ondorioz, hurrengo ekitaldian sartu behar da. Bestalde, inbertsioen kasuan (handiena) zaila da gauzate erritmoaren arrazoizko zenbatespena egitea, aurrekontuko dirua egokitzeko. Aurrekontu proiektua prestatzeko lana uztail aldera hasten da, aurrekontua prestatzeko jarraibideak onartu ondoren, eta urri aldera amaitzen da, nahiz eta behin betiko onarpena urte bukaera arte edo hurrengoaren hasiera arte atzeratu ohi den. Egokia izango litzatekeen arren aurrekontu esleipena aurreikusitako betearazpenera egokitzea, epe horiekin ia ezinezkoa da araudian aurreikusitakoa baino gutxienez ekitaldi bat gehiago ez sartzea, nahiz eta zenbatekoa txikiagoa izan.

Egoera hori konpontzeko neurri gisa, Udalak gastu handieneko proiektuak (inbertsioak gehienak) planifikatzeko prozesuari ekin dio, eta hori jaso da aurrekontuarekin batera doan hainbat urtetarako gastuen eranskinean, kasu honetan 2020ko ekitaldikoa. Puntu horretatik





abiatuta, urtero saiatuko gara behar diren birprogramazioak egiten, 21/2003 Foru Arauak gerakinak segidan txertatzeari buruz ezarritako muga betetzeko, ahal den neurrian bederen.

## 2. paragrafoari dagokionez: Fidantza zaharrak.

Duela urte batzuk saldoen arazketa partziala egin zen. Kontu hartzailetza arloak behar diren giza baliabideak modu egonkorrean izatean, gainerakoak garbitzen hasiko gara, espediente aktiboen eta gordetako fidantzen eta gordailuen artean arrazoizko bat etortzea lortu arte.

## 3. paragrafoari dagokionez: Desbideratzeak finantzaketan.

Araudiak ez ditu bereizten gastu arrunteko eta kapital gastuko proiektuak finantziazio desbideratzei dagokionez, baina, hala ere, jarraitzen den irizpidea da desbideratzerik ez kalkulatzea gastu arrunteko proiektu errepikariaren finantzaketan, inpaktu txikia dutelako. Unean uneko gastu proiektuak izan ezik, horietan bai egiten baita finantziazio desbideratzeen jarraipena, errepikariak dira finantzaketa atxikia duten gastu arrunteko proiektuak, eta, beraz, ekitaldi bateko desbideratze positiboak hurrengoaren negatiboekin konpentsatzen dira neurri handi batean, eta, horrenbestez, kalkulu horren eragina ez litzateke materiala izango. Bestalde, eskura dauden baliabideek adierazten dute zentzuzkoagoa dela ahaleginak proiektu handien desbideratzeetan (inbertsioak) oinarritzea, eta ez ekitalditik ekitaldira errepikatzen diren errepikarietan, haien eragina, kalkularen ahaleginari dagokionez, ez baita oso materiala. Lanbideren kasuan, aurrekontu bakoitzean, ekitaldi horretan aurreikusitako gastuari aurre egiteko behar diren kredituak jasotzen dira, bai eta horien finantzaketa ere; horrela, ahal den neurrian, ez da beharrezkoa izango ekitaldi batetik bestera kreditu gerakinak sartzea, ez eta, beraz, likidazioaren ondoriozko finantzaketa lotua duten gastuetarako diruzaintzako gerakinaren kargura finantzatzea ere.

## 4. paragrafoari dagokionez: ibilgailuak bide publikoan aparkatzeko zerbitzu arautuak eta Oiasso Museoko zerbitzuek eragindako diru sarrerak.

Dagozkien lizitazioen pleguetan xedatutakoaren arabera, emakida-araubidean biak ere, emakidadunaren ordainsariak dira zerbitzu horiek ustiatzetik datozen diru-sarrerak. Zerbitzuak erabiltzen dituzten pertsonengandik zuzenean jasotzen du hark dagozkion tarifen zenbatekoa. Ulertzen da ez dela berea balitz bezala erregistratu behar ez gastua ez diru-sarrera, baizik eta soilik kasu batean jasotako kanona eta bestean egindako ekarpena, horiek adierazten baitute udal-aurrekontuan benetan izandako eragina. Hala ere, zerbitzuen kostuaren jarraipena egiten da, besteak beste, zerbitzuen benetako kostuari buruzko informazio arloko xedapenak betetzeko. Hala ere, oraindik arautu gabe daude ibilgailuak bide publikoan arautu aparkatzeko tarifak; izan ere, araudian berariaz tasa gisa tipifikatzen da bide publikoa okupatzea (Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren 20.2.u art.), eta oraindik zalantzak daude ZKOPP gisa arautzeari dagokionez.

### III.1.2 ATALA. DIRU SARRERA FISKALAK

1. paragrafoari dagokionez: Hiri Izaerako Lurren Balioa Handitzearen gaineko Zerga EIOZ onartzea.

Zergak eta tokiko zuzenbide publikoko beste sarrera batzuk kudeatu, bildu eta ikuskatzeko ordenantza orokorrak, 1999ko otsailaren 24ko osoko bilkuraren erabakiz onartua eta 2002ko azaroaren 27ko osoko bilkuraren erabakiz aldatua, hauxe xedatzen du bere 35.2 artikuluan "Aurreko puntuan aipatzen diren likidazioak [aldizkakoak ez diren zergei dagokienez: HILBHZ, EIOZ,...] Errenta Bulegoak egingo ditu".

Bestalde, Udal diru bilketari buruzko Ordenantzak, 2016ko urriaren 26ko Osoko Bilkuraren erabakiz onartua, alkatetza-lehendakaritzari esleitzen dio likidazioak onartzeko eta balioagabetzeko eskumena, hargatik eragotzi gabe beste udal organo batzuei eskuordetu diezazkiekeen eskuordetzeak.

Era berean, alkatetzaren 2015eko ekainaren 17ko 1054/2015 ebazpenak xedatzen du ogasuneko ordezkartzaren esku uztea eskumena.

EIOZren kasuan, obra lizentzia emateko administrazio egintzak berekin dakar likidazioa egitea, une horretan zehazten baita, besteak beste, gauzatze materialaren aurrekontua. Arrazoi operatiboak direla medio, gauzatze materialaren aurrekontua ez da berariaz jasotzen lizentzia emateko ebazpenean; aitzitik, lizentzia emateko oinarri diren txostenetan jasotzen da.

2. paragrafoari dagokionez: Saldoak ezeztatzea

Isunak Udaltzaingoak kudeatzen ditu, eta borondatezko aldian kobratu ezin daitezkeenak Gipuzkoako Foru Aldundiari bidaltzen zaizkio, Foru Ogasunaren bidez kudeatzeko. Aldian-aldian, Gipuzkoako Foru Aldundiak itzuli egiten ditu kobratu ezin izan diren espedienteak, uste delako kobraezintzat hartu behar direla eta, beraz, kontuetan baja eman behar zaiela. Kudeaketa Arloari eman zaio HKEEren txostenean jasotako gorabeheraren berri, eta aurrerantzean dagokion administrazio ebazpenaren bidez formalizatuko dira isunak deuseztatzearen ondoriozko bajak.

### III.1.3 ATALA. KONTRATAZIOA

1. paragrafoari dagokionez: Balorazio irizpideak.

Prezioa dago formula bidez baloratzen diren irizpideen artean, baina baita beste batzuk ere, kontratuari atxikitako makineriarekin edo kontratuari atxikitako baliabide teknikoekin zerikusia dutenak. Zerbitzuaren kostuari oso doitua dago prezioa irizpidea, eta, beraz, lizitatzailleek ez dute hobetzeko aukera handirik. Prezioaren alde txikiek eskaintza bakoitzari esleitutako puntuazioan alde handirik sor ez dezaten eta horrek esleipen proposamena desitxuratu ez dezan, beste irizpide horiek ere kontuan hartu dira. Makineriarekin eta baliabideekin loturiko irizpide horiek eragozpen bat dute, dikotomikoak dira, hau da, badaude ala ez daude. Horrenbestez, ezin da balorazio proportzionalik egin, eta bi puntuazio baino ezin dira eman: zero puntu, agirietan planteatutako makineria edo bitarteko teknikoak



aurkezten ez badira, edo dagokion kategoriari esleitutako puntu guztiak, baldin eta aurkezten badira. Formula bidezko balorazio irizpideen proportzionaltasunari edo proportzionaltasunik ezari dagokienez, Udalak, lizitazio tasaren doitasunaz jabetuta, kalitatearen eta prezioaren arteko erlazioari begira eskaintza onena aurkezten duen lizitatuileari esleitu nahi dio kontratua, kontratazioaren alorrean indarrean dagoen araudiak xedatzen duen bezala, kontratuaren xedea ahalik eta modurik eraginkorrean beteta.

2. paragrafoari dagokionez: Langileen subrogazioa.

Lan-baldintzak arautzen dituen Udaltzitz akordiora atxikia dago udala, 2008ko azaroaren 26ko osoko bilkuran hartutako erabakiaren bidez (48 zk.ko GAO, 2009ko martxoaren 12koa). Akordioa indarrean dago, irmoa da eta ez zaio errekurtsorik jarri.

Akordio horrek bere 171. artikuluan jasotzen du ondoz ondoko kontratuak lizitatzeko pleguetan derrigorrez sartu behar dela klausula bat kontratua egikaritzera adskribatutako langileen subrogazioari buruz:

“Zerbitzu beraren kontratu publikoetan jarraian gertatutako esleipenak daudenean, eta plantillen egonkortasuna bermatze aldera, enpresa adjudikaziodunek adjudikazio bakoitza gertatzen den momentuan dauden langileen subrogazioa bermatuko dute, gaiaren inguruan sektoreko hitzarmenek esaten dutena albo batera utzita. Horretarako, tramitatzen diren espediente guztietako baldintza-pleguetan subrogazio-klausula jasoko da, eta hori beteko dela ziurtatzeko, gardentasun eta fede ona baldintzak ezarriko dira.”

Horregatik, eztabaidaezina da, akordio arautzailea aldatzen ez den bitartean, derrigorrez sartu behar dela subrogazio-klausula. Auzitegi Gorenak ere zentzu horretan eman du iritzia gai horri buruz:

Zehazki, adierazten du eztabaidatu den atalean Administrazioaren obligazio bat ezartzen dela subrogazio-klausula bat sartu dezan klausula administratibo berezien eta baldintza teknikoaren pleguetan, bere titulartasuneko zerbitzu publikoa esleitzeko administrazio-kontratuetan. Horrek, printzipioz, Langileen Estatutuaren Legearen testu bateginaren 44. artikuluan du lege-oinarria (1/1995 Legegintzako ED); bestalde, gainera, 30/2007 Legearen 104. artikulua ere aipatzen du.

Horrela, bada, era berean adierazten du abiapuntu-oinarria dela Administrazioaren titulartasuneko zerbitzu publiko bat esleitzeko kontratua amaitu denean, zerbitzu hori Administrazioa itzultzen dela juridikoki, eta, horrenbestez, subrogatzeko lege-obligazioa beteko duela, hari dagokionez, esleipendunak zerbitzuan erabili dituen langileen kontratuetan. Hori oinarritzat hartuta, zerbitzu bera egiteko geroagoko esleipen-kontratu batean esleipendunaren subrogazio-klausula ezartzen denean aurreko esleipendunak zerbitzuan enplegatuta eduki zituen langileen lan-kontratuetan, akordio arautzailearen 17 atalak ezartzen duen bezala, ezin da esan berez Administrazio kontratu horietatik kanpoko hirugarren bat denik; izan ere, zuzenean loturik dago enplegatzailearen posizioan subrogazioaren mekanismoan.

Gainera, esaten du horrela LELen 44., 30/2007 Legearen 104. Eta 7/2007 Legearen 37.1 artikuluen interpretazio sistematikotik atera behar den ondorioa dela hemen eztabaidatzen



den bezalako itun bat guztiz sartzen dela Administrazio Publikoetako langile laboralen negoziazio kolektiboan.

Udalak, Udalhitzeko 171. artikulua aplikatuz, kontratuari atxikitako langileen subrogazio betebeharra barne hartzen du kontratuen pleguetan.

3. paragrafoari dagokionez: Prozedura negoziatua publizitatearekin.

9/2017 Lege berria, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena (SPKL) onetsi eta indarrean sartzeak paradigma-aldaketa dakar kontratazio publikoan, eta egoera horrek sektore publiko osoari eragiten dio, eta, beraz, Irungo Udalari ere bai. Dagozkion espedienteak izapidetzeko atzerapenen arrazoia da udal-kontratazioan erabiltzen diren ereduak, txantiloia eta prozedurak egokitu beharra dagoela, eta eguneratu egin behar direla lege berritik ondorioztatzen zen kontratazio-paradigma berria kudeatzen duten arlo guztiak, eta, ondorioz, orain arte erabili diren esleipen-irizpideak sakon berrikusi behar izan dira.

Espedientea konplexua zelako (2018ZAUN0046), arlo kudeatzaileak kanpo-laguntzara jo behar izan zuen lizitazio arrunta arautu behar zuten plegu teknikoak egiteko, eta, gainera, lizitazioan, adituen batzorde batek parte hartu behar izan zuen, lizitatzailen proposamen teknikoak baloratzeko. 2019ko apirilaren 10ean hasi zen lizitazioa, eta 2019ko uztailaren 17an kontratua esleituta amaitu zen.

Kasu honetan, elkarren segidako espedienteak dira, bigarrena 6 hilabeteko aurrekoaren jarraipena, aipaturiko lizitazio berrirako pleguak egiteko atzerapenaren ondorioz. Hauxe dio 2018ZAUN0012 espedientearen dagoen txosten juridikoak:

“SPKLren 131.2 artikulua araberan, zerbitzuak emateko kontratua kontratatzeke ohiko modua, IV. eranskinean jasota dagoena, prozedura mugatua da. Hala ere, SPKLren 167 a) artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, negoziatutako lizitazio prozedura erabil daiteke, kontratuaren xede den zerbitzua emateko lizitatzailerek egokitze lana egin behar baitute aldez aurretik.

Ez dago erregulazio harmonizatuaren mende, eta, beraz, lizitazioa kontratatzailearen profilean bakarrik argitaratu behar da (SPKLren 22. artikuluan ezarritakoaren arabera).

4. paragrafoari dagokionez: Kaudimen teknikoa egiaztatzea.

